

MUSIKOTERAPIAREN ONURAK HAUR

HEZKUNTZAKO GELA BATEAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: García Olea, Ania

ZUZENDARIA: Fernández Zabala, Arantza

2021

Laburpena: Gaur egun frogatuta dago musikoterapiak hainbat onura dituela pertsonen garapen integralean. Era berean, Haur Hezkuntzatik musikaren erabilera terapeutiko hau eta estimulazio musikala bultzatzea eragin oso positiboak ditu. Lan honen helburua musikoterapiako oinarri teorikoetatik abiatuz, musikoterapia esku-hartze inklusibo bat diseinatzea eta martxan jartzea da, musikoterapiaren onurak behatzeko eta hurrei musikaren bidez garatzeko aukera emateko. Esku-hartzea Gasteizko ikastola kontzertatu batean aurrera eraman da, Haur Hezkuntzako 5 urteko gela batean zehazki. Gela honetan hogeita bost haur zeuden, hamabost neska eta hamar mutil, eta horietako bik garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak zituzten. Behaketa sakona egin ondoren, hainbat behar identifikatu ziren, musikoterapiaren bidez hilabete batean zehar antolatutako bost saiotan landu zirenak. Orokorrean, oso emaitza positiboak lortu ziren, musikoterapiak eragindako inklusioa eta jarduerak aurrera eramatearen erraztea nabarmenduz. Horrenbestez, ondorioztatzen da musikoterapiak eragin positiboak dituela haurren garapen integralean eta oso erabilgarria izan daitekeela hezkuntza arloan egoera, behar eta alderdi anitzak lantzeko. Bukatzeko, hainbat hobekuntza proposamen luzatzen dira.

Hitz gakoak: musikoterapia, Hezkuntza Berezia, Haur Hezkuntza, inklusioa, esku-hartzea.

Resumen: Actualmente está comprobado que la musicoterapia tiene beneficios en el desarrollo integral de las personas. Al mismo tiempo, impulsar la estimulación musical y el uso terapéutico de la música desde Educación Infantil tiene efectos muy positivos. Partiendo de las bases teóricas de la musicoterapia, el objetivo de este trabajo es diseñar e implementar una propuesta inclusiva para observar los beneficios de la musicoterapia y dar la posibilidad a niños y niñas de desarrollarse a través de la música. La propuesta de musicoterapia se ha llevado a cabo en un colegio concertado de Vitoria, en concreto en un aula de 5 años. En este aula había veinticinco niños, quince niñas y diez chicos, de los cuales dos tenían dificultades en el desarrollo y aprendizaje. Tras realizar una profunda observación en la clase, se identificaron varias necesidades, las cuales se trabajaron en cinco sesiones realizadas en el periodo de un mes. En general, se obtuvieron muy buenos resultados, subrayando la inclusión y la facilidad de realizar las actividades que generó la musicoterapia. Por ello, se concluye que la musicoterapia

tiene efectos positivos en el desarrollo integral de los niños y que puede ser muy útil en el ámbito educativo para trabajar diversas situaciones, necesidades o áreas. Para acabar, se ofrecen varias propuestas de mejora.

Palabras clave: musicoterapia, Educación Especial, Educación Infantil, inclusión, propuesta.

Abstract: Nowadays, it is known that musictherapy is beneficial for people's comprehensive development. At the same time, the encouragement of musical stimulation and the therapeutical use of music in Preschool aged kids has proven to have positive effects. On the basis of musictherapy, the aim of this work is to design and implement an inclusive proposal to observe the benefits of musictherapy and, to offer children the possibility of developing through music. The musictherapy proposal has been carried out on a concerted school of Vitoria-Gasteiz, in a classroom of 5 year olds specifically. In this class there were twenty five children, fifteen girls and ten boys with two of them presenting development and learning difficulties. After conducting a deep observation, certain needs were identified that were worked on throughout five sessions in the span of a month. Overall, the results were positive, underlining the inclusion and facility of doing the activities generated by musictherapy. Therefore, musictherapy has really positive effects on the comprehensive development of children and can be very useful in education to treat diverse situations, needs or areas. Finally, there are some improvement proposals.

Key words: musictherapy, Special Education, Preschool, inclusion, proposal.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. MUSIKOTERAPIA	2
2.1. Terminologia eta definizioa.....	2
2.2. Historia eta garapena.....	3
2.3. Erabilera eta helburuak.....	5
2.4. Teknikak.....	6
2.5. Musikaren eragina garunean.....	8
2.6. Musikoterapiaren onurak.....	9
2.6.1. Musikoterapiaren onurak haurren garapen integralean.....	9
2.6.2. Musikoterapiaren onurak Hezkuntza Berezian.....	11
3. LANAREN JUSTIFIKAZIOA	15
4. LANAREN HELBURUA	16
5. ESKU-HARTZEA	16
5.1. Helburua	17
5.2. Testuingurua	17
5.3. Metodoa	18
5.4. Diseinua	20
5.4.1. Konpetentziak.....	20
5.4.2. Helburuak.....	21
5.4.3. Edukiak.....	22
5.4.4. Ebaluazioa.....	23
5.4.5. Sekuentzia.....	23
5.5. Inplementazioa	28
5.6. Ebaluazioa	30
6. ONDORIOAK	33
7. MUGAK ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK	35
8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	37
9. ERANSKINAK	42

1. SARRERA

Hiztegiak dio musika hotsak arau jakinen arabera konbinatzeko artea dela (Euskaltzaindia, 2016). Hala ere, musikaz hitz egitean horri baino azkoz gehiagori erreparatzen zaio. Oscar Wilde (1891) idazleak zioen, definitzea mugatzea dela eta hori gertatzen da musikari definizio zehatz bat ematean. Izan ere, musika arte, zientzia eta hizkuntza unibertsala kontsideratzen da, adierazteko limiterik gabeko bidea (Lacárcel, 2003) eta bere definizioan auzi psikologiko, kultural, sozial eta historikoen eragina dute. Hori dela eta, oso definizio anitzak daude eta ez dago bat absolutua edo perfektua denik. Hala ere, argi dagoena da musikak garunean eragina duela eta organo honen bi hemisferioek modu holistikoa bizkortasun eta integrazio handiagorekin lan egitea errazten dutela (Moreira eta Montalvo, 2016).

Aipatutakoa kontuan izanda, musika baliabide onuragarria bilakatzen da pertsonen garapenerako. Gradu Amaierako Lan honetan, batez ere, haurtzaroan jarriko da begirada. Horrenbestez, musikak aukera esanguratsuak irekitzen ditu Haur Hezkuntzako geletan eta ekintza musikalen bidez, hainbat gaitasunen garapena ematen da, euren artean memoria, arlo sensorial eta sinbolikoaren garapena, entzumen diskriminazioa, sinkronizazioa, arreta, parte-hartzea, taldearenganako pertenezia sentimendua etab. (Díaz, 2004).

Haurtzaroan neuroplastizitate neuronal oso handia da, beraz zenbat eta estimulazio handiago, orduan eta konexio neuronal gehiago eraikiko dira, garapenaren gaitasun eta abileziak bultzatuz (Botella eta De los Ángeles, 2016). Haurtzaroan eraikitzen diren sare neuronalak, helduen garunaren eta etorkizuneko ikasketen oinarriak dira eta haurrek estimulazioa jasotzen ez badute, neuronak eta sare neuronal hauek desagertzen joaten dira, etorkizunean ikasketak finkatzea zaildu dezakeena.

Ondorioz, ezinbestekoa da Haur Hezkuntzako geletan musika erabiltzea eta estimulazio musikal aproposa eskaintzea, honek garapen integralerako oso onuragarria delako.

Lan hau atal ezberdinetan antolatuta dago. Marko teorikoari dagokionez, musikoterapiaren oinarri teorikoak aztertuko dira eta informazio zehatza eta eguneratua eskainiko da. Marko teorikoaren ostean, Gradu Amaierako Lan honen justifikazioa

adieraziko da eta jarraian lan osoaren helburua. Bestalde, Gasteizko ikastola kontzertatu bateko Haur Hezkuntzako 5 urteko gela batean aurrera eramandako musikoterapia eskuhartze inklusibo baten diseinua, implementazioa eta balorazioa aurkeztuko da. Bukatzeko, lan osoaren ondorioak azalduko dira eta mugak zein hobekuntza proposamenak eskainiko dira.

Amaierako orrialdeetan, erreferentziak eta eranskinak aurkitzen dira.

2. MUSIKOTERAPIA

Atal honetan musikoterapiaren bilaketa bibliografiko bat eskainiko da, musikoterapiaren inguruko datu zehatz eta eguneratuekin. Informazioa hainbat azpiataletan antolatuta dago; terminologia eta definizioa, historia eta garapena, erabilera eta helburuak, teknikak, musikaren eragina garunean, musikoterapiaren onurak garapen orokorrean eta musikoterapiaren onurak Hezkuntza Berezia, hain zuzen ere.

2.1. Terminologia eta definizioa

Musikoterapia hitza, etimologikoki “musika” eta “terapia” hitzetatik dator, musikaren bidez terapia egitea esan nahi duena. Musikoterapiako Munduko Federazioak 2011an zehaztu zuenez, musikoterapia teknika bat da musikaren edota bere elementuen erabilera profesionalaz arduratzen dena eta osasun-, hezkuntza eta egunerokotasun arloetan interbentzio batean islatzen dena, banakoen, taldeen, familien edo komunitateen bizi-kalitatea, osasun-espirituala eta ongizate fisiko, sozial, komunikatibo, emozionala eta intelektuala hobetzeko helburuarekin. Musikoterapia ez da soilik musikan oinarritzen, sarritan beste arte adierazpenekin erlazionatzen da, hala nola, abestiak idaztea, istorio musikala kontatzea, dramatizazioak egitea, marrazkiak irudikatzea etab. (Del Campo, 2013).

Bestalde, musikoterapia ez da hezkuntza musikalararekin nahastu behar, nahiz eta hainbat ezaugarri komun izan; hala nola, musika, oinarritzko baliabide, hizkuntza eta komunikatzeko bitartekari hartzen dute; pertsonen artean harreman interpertsonalak

eraikitzen dituzte; prozesu sistematikoak dira, helburu, antolaketa eta erregularitasun batekin; egite musikalak proposatzen dituzte etab.

Hala ere, beste ezaugarri batzuetan ezberdintzen dira, Llamas-ek (2012) zerrendatzen dituenak. Hasteko, hezkuntza musikalean, musika, helburu bezala ikuskatzen da, non helburu orokor eta eduki curricular batzuk landu behar diren eta ondorioz, lantzekoa prozesu itxia den. Musikoterapian berriz, musika beste gauza batzuk lortzeko bidea da eta prozesua, banakoen beharretara egokitua, irekia, esperimentalak, ebolutibo eta interaktiboak da. Gainera, hezkuntza musikalean erabiltzen diren jarduerak egite musikalen kalitatea hobetzea dute helburu, musikoterapian, ordea, kontuan hartzen da bereziki egite musikak horren balio terapeutikoa. Azkenik, musikoterapiak, hartzailearekiko, baliabide terapeutikoenekiko, gaitasun musikalekiko eta harreman interpersonalekiko musikoterapeuta profesional baten ezagutza eskatzen du (Belin, 2008), hezkuntza musikaleko bideratzailea izateak, ordea ez.

2.2. Historia eta garapena

Musika historian zehar presente egon den diziplina bat da eta urteen poderioz asko garatu da. Musikoterapiaren kontzeptua ez da XIX. mendera arte finkatzen, hala ere, musikaren erabilera bere hasierako etapatik anitza izan da. Jarraian, musikaren erabileraren garapena historian zehar, etapa primitiboetatik gaur egun arte azalduko da.

Errealitate bat da ez dagoela argi musikaren sorreraren momentua. Egile batzuek defendatzen dute musikaren sorrera gizakiaren aurrekoa dela, hala ere, gehien defendatzen den teoria, gizakiaren sorrerarekin sortu zela da, musika komunikatzeko era bat delakoan eta komunikazioa gizartearen oinarria (Poch, 1999). Momentu horretatik aurrera, musikak hainbat eratan eragin du. Etapa primitiboan, abestiak, gizakien bizitzaren erritu eta momentu garrantzitsuenekin lotuta zeuden: dantzekin, ehizarekin, jaiotzekin, hiletekin, ospakizunekin, sendaketekin etab. Abestiek izaera magikoa zuten eta gaizkia uxatzeko eta ongia erakartzeko erabiltzen ziren. Izan ere, mediku askok antzina, kantu, oihu eta ahozko baliabideak, mugimenduekin lagunduta, erabiltzen zituzten jendea sendatzeko eta kalte egiten zieten espiritu eta eragile gaiztoei aurre egiteko (Pérez, 2010).

Egipziarrek, k.a. 1284. urtean, dagoeneko musikari erabilera terapeutikoa ematen zioten. Izan ere, Herófilo mediku alexandrinoak pultsio arterialak musika eskalekin erregulatzen zituen (Oneca, 2014). Grezia eta Erroma zibilizazioetan ere, musika eragile terapeutiko bezala hartzen zuten. Alde batetik, musika egoera animikoekin lotzen zuten eta musikaren izaerak patologia sendatzeko ahalmena zuela defendatzen zuten, musikak egoera eta izaera orekatua izatea ahalbidetzen baitzuen. Bestetik, musika jainkotasunarekin harremanetan jartzeko bidea kontsideratzen zen eta Jainkoa ongia edo gaizkia eskaintzen zuena zela sinisten zuten.

Erdi Aroan, aurreko zibilizazioek utzitako tradizioekin jarraitu zuten eta musikaren erabilera terapeutikoa zabaldu zen. Geroago, Errenazimenduan, lehenengo aldiz, musikaren eragina arnasketan, odol-presioan, digestioan eta giharren aktibitatean aztertu zen (Pérez, 2010) eta XIX. mendean, musikaren erabilera terapeutikoaren inguruan hainbat ikerketa eta idatzi egin ziren, non musika tratamendu tradizionalaren gehigarri edo alternatiba bezala deskribatzen zen. Izan ere, XIX. mendearen bigarren erdian, Rafael Rodríguez Méndez medikuak musikaren erabilera terapeutikoa izendatu zuen (Corbella eta Doménech, 1987) eta mendearen bukaeran, Francisco Vidal (1881) medikuak lehenengo tesia idatzi zuen musika eta medikuntza bateratzen zituena: “La música en sus relaciones con la medicina”. Tesi honetan, hainbat ondorio garrantzitsu atera zituen, hala nola, musika eragile soziala zela, asaldura edo urduritasun egoerei aurre egiteko balio zuela edo atsedena hartzeko eta distraitzeko aukera ematen zuela (Palacios, 2004).

XX. mendean aurrerapen handiak egin ziren, non, Eva Vescelius eta Isa Maud Islenek ekarpen handiak egin zituzten. Alde batetik, “National Therapeutic Society in New York” eta “The National Music Company for Hospitals” sortu zuten eta musikaren laguntzarekin hainbat gaixotasun trata daitezkeela frogatu eta egiaztatu zuten (Vescelius, 1918). Bestetik, I Mundu Gerran, Estatu Batuetan, neurosia zuten soldaduei musikarekin lagundu zieten eta hobekuntza handiak behatu zituzten.

Gaur egun, musikak terapia bezala zabalkuntza handia du eta hainbat profesionalak lan egiten dute arlo honetan. Amerikan, teknika honen erabilera oso handia da. Argentinan, adibidez, Rolando O. Benenzon musikoterapiaren munduko aditu nagusia izan zen, “Asociación Argentina de Musicoterapia” fundatu zuen eta munduan zehar kurtsuak eskaini zituen. Estatu Batuetan ere musikoterapiaren garrantzia eta ikerketa

oso handia da eta musikoterapeuten lanbidea, lanbide arautzailea kontsideratzen da (Del Moral, 2015). Bestalde, Europan, ez aurrekoetan bezain beste, baina musikoterapia nahiko zabalduta dago ere, bai teoria bai praktikan. Izan ere, hainbat herrialdetan, hala nola Austrian, Alemanian, Danimarkan edo Erresuma Batuan, asoziazioak, graduondoko programak, kurtsoak eta institutuak daude alor honetan espezializatuak (Palacios, 2004).

Espainiako Estatuan musikoterapiaren inguruko ikerketak eta garapena gero eta handiagoak dira. Izan ere, musikoterapiaren profesionalizazioa bermatzeko, 2010ean Europak Europako Musikoterapeuta Erregistroa (EMTR) diseinatu zuen eta Espainiako Estatuak, erregistro honen parte izateko, bere markoa egokitu zuen Espainiako Musikoterapeuta Akreditatuen Erregistroa (REMTA) sortuz (Sabbatella, 2011). Horrenbestez, Espainian, musikoterapia formala titulazio eta akreditazio profesional marko batean eta Europako Musikoterapeuta Erregistroan (EMTR) oinarritzen da. Horrez gain, Estatuan, hainbat kongresu ospatu dira eta gero eta unibertsitate gehiagok eskaintzen dituzte musikoterapiaren inguruko formakuntzak, saioak eta graduondoak (Del Moral, 2015). Horrez gain, aipatzekoa da Vitoria-Gasteizen “Centro de Investigación de Musicoterapia AgrupArte” existitzen dela etengabe aurrerapen eta ekarpen handiak egiten dituen. Zentro hau duela hogeita hamar urte baino gehiago sortu zen eta bere helburua pertsonen eta diziplina ezberdinen arteko elkartzea bultzatzea, sormenezko hizkuntza artistikoen bidez dialogoa sustatzea eta pertsonen garapena indartzea da (Morales, 2018).

2.3. Erabilera eta helburuak

1996an Hamburgon, Alemanian, ospatutako VII. Munduko Kongresuan, Musikoterapiaren Munduko Federazioak musikoterapiaren helburua definitu zuen: “Prebentzio, tratamendu eta errehabilitazioaren bidez, banakoen gaitasunak garatzea edota funtzioak berreskuratzea, honek integrazio inter eta intra pertsonala lortzeko eta ondorioz, bizi kalitate hobea lortzeko” (Sacks, 2010).

Musikoterapiak pertsona bakoitzarentzat helburu zehatz batzuk diseinatzen ditu. Hala ere, musikoterapiak lau helburu nagusi ditu (Del Campo, 2013)

1. Komunikazioa erraztea. Musikak, bai jotzen edo entzuten denean, sentimendu eta ideien elkar trukea ahalbidetzen eta sustatzen du.
2. Harreman interpertsonalak hobetzea. Taldean musika entzutean edo musikaren elementuekin lan egitean, giro emozional batean murgiltzen dira, hartzaileak espresatzea eta elkarrekintzak bultzatzen dutenak.
3. Bakoitzaren autoezagutza garatzea. Jarduera musikalek lagun dezakete norbera hobeto ulertzen eta adierazten.
4. Adierazteko gaitasuna garatzea. Musika adierazteko eta emozionalki askatzeko baliabide aparta da.

Musikoterapiaren erabilera oso anitza da, hainbat arlotan aplikatzen baita. Musika Neurozientzia ikerketek frogatu dute musikaren erabilerak hainbat garun-area aktibatzea eragiten duela, area musikalak ia kortex zerebral osoan daudelako eta ez soilik eskuineko area batzuetan aurretik pentsatzen zen bezala (Cano eta Custodio, 2017). Hainbat garun-area aktibatzeak musikoterapiak hainbat erabilera izatea eta mundu guztiarentzat onuragarri izatea eragiten du. Prebentzio, tratamendu eta errehabilitaziorako erabiltzen da, arlo afektibo-emozional, motore, sozial, kognitiboan onurarako (Cano eta Custodio, 2017). Beraz, pertsona asko dira onurak lor ditzaketenak, besteak beste, gaixotasunak, zailtasunak eta nahasteak dituzten pertsonak, sormena edo autoestimua handitu nahi dutenak, edo estresa zein antsietatea landu behar dutenak (De los Santos, 2010).

2.4. Teknikak

Musikoterapian lau teknika erabiltzen dira, bi talde handitan sailkatzen direnak: teknika harkorrak eta teknika aktiboak (Agudo, 2015).

Lehenik, **teknika harkorra**, entzuketa musikal eta erantzun isil, hitzezko edo ez-hitzezkoan oinarritzen da (Bruscia, 1997). Entzuketek irudi eta oroitzapenen estimulazioa dute helburu eta hauen bidez atentzioa, kontzentrazioa eta memoria lantzen da (Agudo, 2015). Era berean, musikaren hizkuntza sinbolikoaren bidez, ezagutza emozionala, komunikazioa eta adierazpena errazten dira. Entzuketa musikaletan, bai bezeroek bai musikoterapeutek aukeratzen dituzte abestiak (grabatuak/zuzenean), bezeroen interes eta beharretara bideratuta daudenak. Teknika harkorren artean,

Brusciak (1997) emandako azalpenen eskutik, Grockek eta Wigram-ek (2007) bere liburuan hainbat zerrendatzen dituzte, euren artean nabarmenenak hauexek dira: erlaxazioa, abestien letren bidez hausnarketa eta eztabaida, entzuten ari denaren laguntzaz baliabide grafikoekin adieraztea edo Bonny-ren Irudi gidatua eta musika (Guided Imagery and Music (GIM)).

Azken hau 1970an Helen Bonny-k sortutako metodo harkorraren aldaera motzago eta sinpleago bat da, non bezeroak, musikak aurrera egin ahala irudiak askatasunez proiektatzen ditu, kontzientzia asaldatuta duen eta terapeutarekin hizketan dagoen bitartean (Bruscia, 1997).

Bigarrenik, **teknika aktiboa** dago, sorkuntza, parte-hartze eta inprobisazio musikalean oinarritzen dena, hau da, musikarekin egitea eta sortzea bultzatzen duena. Teknika aktiboaren barruan hiru azpigai ezberdintzen dira: ahozkoa, gorputzezkoa eta instrumentala.

Ahozkoak abestearekin dauka lotura. Abesteak egoera negatiboetatik eta agresibitatea ateratzen laguntzen du. Horrez gain, arnasketa gaitasuna, emozio adierazpena, memoria eta hizkuntzarekin zailtasunak gainditzeko laguntzen du. Izan ere, taldean abatea sozializazio eta komunikazio funtzio bikaina da, autoestimua eta norberarenganako konfiantza indartzen duena.

Gorputzezko inprobisazio eta adierazpena, musika eta mugimenduekin lotzen da. Musikak gorputz-eskema mugitzea bultzatzen du, gorputzaren kontrola eta kontzientzia hartzea, sormena garatzea eta mugimenduekin adieraztea eta komunikatzea eragiten duena. Izan ere, mugitzeak, dantzatzeak eta erritmora koordinatzeak tentsioak askatzera, erlaxaziora lortzera eta antsietate zein estres egoerak kudeatzera eramaten du.

Azkenik, inprobisazio edo sorkuntza instrumentalak, instrumentuekin jardutearekin du zerikusia. Instrumentuen sentibilizazio eta esplorazioarekin, erritmoa, melodia, adierazpen askatasuna, sormena eta komunikazioa lantzen da, non ez diren helburu estetikoak bilatzen, baizik eta esperientzia musikal aberatsak, bezeroa askatzea eta adieraztea bilatzen dutenak.

2.5. Musikaren eragina garunean

Musikaren prozesaketari dagokionez, musika soinua da, soinua belarrietara iristen diren uhinak. Ondoren, uhin horiek energia elektrikoa bihurtzen dira neuronen bidez garunera iristeko. Horrenbestez, entzuketa ematen da soinu-uhin horiek entzumen-nerbioa kitzikatzen dutenean eta informazioa garunaren entzumen zentrora iristen denean (Lacárcel, 2003).

Entzumen zentroak garuneko leku ezberdinetan egon arren, garunak era orekatuan egiten du lan. Garuna bi hemisferiotan banatuta dago, ezkerraldekoa eta eskuinaldekoa, eta hemisferio bakoitzak funtzio batzuetaz arduratzen da. Ezkerraldekoan, adibidez, ideiak, hizkuntza, analisi eta logika gaitasunak nagusitzen dira eta eskuinaldekoan berriz, sintesi gaitasuna eta espazio, forma eta musikaren pertzepzioa.

Hala ere, musikaren funtzio zerebrala oso konplexua da eta osagai ezberdinek eragiten dute, bi hemisferiotan kokatuta daudenak. Ezkerraldeko hemisferioa, erritmo gaitasuna, sekuentzien elaborazioa, egite musikalen mekanismoa, abestean hitzen ahoskera eta adierazpen berbalaz arduratzen da. Eskuinaldekoa, ostera, adierazpen ezberbalaz, tinbrearen diskriminazioaz, funtzio espazialaz eta intuizio zein irudimen musikalaz. Hori dela eta, musikaren erabileran garun osoaren elkarlana behar da. Hau da, musikak garunaren funtzionamendu holistikoa bultzatzen du, garuneko bi hemisferioek eta hainbat area zerebralek parte hartzen dutelako (Lacárcel, 2003). Izan ere, ikerketa neuro-anatomiko eta klinikoek, erresonantzia magnetiko funtzionalek eta musikariak direnen eta ez direnen arteko ikerketek frogatu dute garunaren konplexutasuna sormen, interpretazio eta pertzepzio musikalen auzietan handia dela, area musikalak garun osoan zehar daudelako (Cano eta Custodio, 2017). Esaterako, frogatu da eskuineko lobulu tenporala aktibatzen dela tinbrea diskriminatzean (Blood et al., 1999), lobulu parietala musikarekin dantzatzeko ekimenean edo amigdala musikarekin emozioak prozesatzean (Livitin eta Tirovolas, 2009).

Hori dela eta, musikak emozioekin lotura estua du. Garunean dagoen sistema linbikoaren funtzio nagusi bat afektibitatea eta arlo emozionalaren kudeaketa da eta amigadala, sistema linbiko honen parte da, emozioen kontrolaz arduratzen dena (Lacárcel, 2003) eta musikarekin aktibatzen dena (1.Eranskina). Erantzun emozionalek ezagutza eta aurretiko esperientziekin lotura dute, hala ere, ikerketek frogatu dute

gehienetan, musika tonala entzutean, sentsazio atseginekin lotura duten sistema linbikoaren area batzuk aktibatzen direla, musika atonalarekin, berriz, sentsazio deserosoekin lotutakoak (Blood et al., 1999). Era berean, egiaztatu da tonalitate maiorrean dauden kanta azkarrek alaitasun erantzunak sortzen dituztela, tonalitate minorrean dauden kanta lasaiek, aldiz, tristura (Krumhansl, 1997). Ikerketa hauekin ikus daiteke musikaren eragina emozioetan handia dela eta musika, musikoterapiaren bidez, oso erabilgarria izan daitekeela emozioak lantzeko.

Horrenbestez, musikaren boterea gizakiarengan oso handia da eta frogatuta dago musika baliabide hezigarri bezala erabiltzeak efektu positiboa duela garunaren antolakuntzan (Boso et al., 2006). Are gehiago, musikak oreka dinamikoa ezartzen du garunaren bi hemisferioen artean eta ikaskuntza orekatuagoa bultzatzen du. Horrenbestez, oso onuragarria da estimulazio sentsorial eta musikala bultzatzea, garuna estimulatzeko eta konexio neuronalak eraikitzen jarraitzeko, hauek garapen esanguratsua sustatuko baitute (Lacárcel, 2003).

2.6. Musikoterapiaren onurak

Hurrengo ataletan musikoterapiaren onurak aurkeztuko dira haurren garapen orokorrari dagokionez eta Hezkuntza Bereziari dagokionez.

2.6.1. Musikoterapiaren onurak haurren garapen integralean

Musikaren erabilerak eragin positiboa dauka haurren garapen holistikoa, hala ere, jarraian musikoterapiaren onurak haurren garapen arlo bakoitzean aztertuko dira, hau da, arlo kognitibo, emozional, psikomotor eta sozialen garapenean (Palacios eta Leal, 2018).

Hasteko, prozesu kognitiboetara dagokienez, musikaren erabilerak komunikazioan, pentsamenduan, eta arreta zein memorian onurak ditu. Alde batetik, musikak adierazten eta komunikatzen laguntzen du (Salamanca, 2003). Izan ere, 0-6 urte bitarteko haurren komunikazio gaitasuna heldugabea da eta musikaren izaera abstraktuak adierazten

laguntzen die (Palacios eta Leal, 2018). Horrez gain, abestiek hiztegia, esaldien egiturak eta jariakortasuna aberasten dute. Beste aldetik, musikoterapiak, instrumentuen erabilera, abestien konposizio edo entzuketa musikalen bidez, pentsamendua, sormena, arreta, memorizazioa eta adierazpena lantzeko aukera ematen du.

Arlo psikomotorrari dagokionez, musikaren erabilerak, mugimendua, koordinazioa, aktibazioa edota erlaxazioa sustatzen du. Alde batetik, musikak psikomotrizitate lodi zein finean onurak ditu. Psikomotrizitate lodian, bai adierazpen librean bai dantza sistematizatuagoan, oreka, lekualdaketak, gorputz-jarrera eta gorputz-mugimenduen edo keinuen erabilera, ezagutza, koordinazioa edota kontrola ematen da (Lacárcel, 2003). Psikomotrizitate fina eta lateralitatea, haurtzaroan garatzen ari diren gaitasun motore zehatzak, berriz, begi-esku koordinazioan, eta instrumentuen erabileran lantzen da (Barrios eta Gómez, 2018). Beste aldetik, estimulazio musikalek, euren artean melodiak edo hauen bibrazioak, gorputza erlaxatzeko eta aktibatzeke gaitasuna dute, gorputzak aktibatzeke zein asaldura maila orekatzeke egitura eta mekanismoak dituelako (Palacios eta Leal, 2018). Era berean, musikak antsietatea eta estresa murrizten eta erlaxazioa, bihotz-erritmo eta arnasketa lasaia eta sakona lortzen laguntzen du (Hazard, Miranda eta Miranda, 2017).

Arlo afektibo-emozionalari dagokionez, lehen aipatu den moduan, musikak garapen emozionalean eragin positiboa du. Alde batetik, musikoterapiaren teknika ezberdinek emozioak, kezkak eta arazoak adierazten eta identitatea garatzen laguntzen dute (Sánchez, 2017). Esaterako, instrumentu, ahots edo gorputz-mugimenduen bidez, haurtzaroan oraindik hitzen bidez esatea zaila egiten dena, adierazten dute. Horrez gain, musikak erantzun emozionalak gauzatzeko gaitasuna du. Izan ere, musika estimulu emozional garrantzitsua kontsideratzen da, erantzun emozionalek aldaketa fisiologikoak ekartzen baitute eurekin (Custodio eta Cano, 2017). Erantzun emozionalak, ezagutza eta bizitako esperientzien araberakoak dira, hala ere, musika atsegingarria denean, berdin du zein pertsona den, motibazio zirkuituak aktibatzen baitira.

Azkenik, arlo sozialari dagokionez, musikoterapiak sozializazio prozesuak aktibatzen ditu, elkarrekiko interakzioa, kohesioa, errespetua eta kolaborazioa handituz (Arias et al., 2013). Gainera, musikarekin taldean jardutean, bai musika entzutean bai sortzean, giro emozional egokia sortzen da gainontzeko hurrekin askatasunez adierazteke eta elkar eragiteke (Palacios eta Leal, 2018). Horrez gain, musikoterapia

inklusioa sustatzen duen teknika oso esanguratsua da. Izan ere, Haur Hezkuntzako geletan musika oso tresna erabilgarri eta inklusiboa bilakatzen da haur guztien parte-hartzea, gozamina eta garapen integrala bultzatzen duelako (Tomás, 2018).

Laburbilduz, esan daiteke musikoterapiaren onurak arloka ikusi arren, musikoterapiak garapen integrala sustatzen duela (Villagómez, 2016). Ikusi bezala, musikak hainbat garun area aktibatzeko gaitasuna du, horrenbestez, musikoterapiaren bidez, aldi berean, hainbat efektu sor daitezke pertsonaren arlo ezberdinetan (Agudo, 2015), pertsona osotasunean kontuan hartzea eragiten duena.

2.6.2. Musikoterapiaren onurak Hezkuntza Berezian

Ikusi bezala, musikoterapiak garapen integralean, hau da, arlo afektibo-emozional, psikomotor, kognitibo eta sozialean eragin positiboa dauka, emozioen garapena, estimuluen pertzepzioa, harreman sozialak, motrizitatea, adierazpena edo gorputzaren kontrola ahalbidetuz. Garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak dituzten hurrek askotan aipatutako arlo hauetan zailtasunak edo nahasteak dituzte, hala nola, emozioen autoerregulazio eta adierazpenean, gorputza eta lasaitasunaren kontrolean, komunikazioan, elkarreragin sozialean edo inklusioan. Hala ere, besteei bezala, musika estimuluek arreta deitzen diete, horrenbestez, musikoterapia gero eta bide baliagarriagoa bihurtu da garapenean edo ikaskuntzan zailtasunak dituzten haurren garapena sustatzeko. Jarraian hiru nahasmendu aztertuko dira eta musikoterapiaren onurak hauengan deskribatuko dira.

2.6.2.1. Autismoaren Espektroko Nahasmena (AEN)

Autismoaren Espektroko Nahasmena (hemendik aurrera AEN) neurogarapenaren nahasmen bat da jaiotzetik ematen dena eta pertsonen garapenaren hainbat alorretan eragina duena. DSM-5ak zehazten du sintomak batez ere hiru alorretan ematen direla, harreman sozialetan, komunikazioan eta zurruntasun kognitiboan (American Psychiatric Association, 2014). Nahasmenaren larritasuna aipatutako sintomen graduak zehaztuko du. Izan ere, “National Institute of Mental Health”-ek, (NIH, 2018) zehazten du

“Espektro” hitzak, sintoma, indargune eta zailtasun gradu sorta anitza adierazten duela. Horrenbestez, AEN-ek hainbat gradu barneratzen ditu.

Musikoterapiaren lorpen handienetariko bat AEN alorrean aurkitzen da (Lara, 2016) honen onurak autismoaren espektroko nahasmena duten haurren handiak direlako. Aipatzekoa da nahasmen honen gradu aniztasunak emaitza eta onura aniztasuna eragiten duela. Hala ere, hainbat ikerketa egin dira eta frogatu da musikoterapiaren onurak AEN duten haurren handiak direla (Garrote et al., 2018).

Hasteko, musikoterapiaren bidez bestearekiko kontaktua eta elkar eragina bultzatzen da, musikak edo soinuek musikoterapeutaren eta erabiltzailearen interrelazioa ahalbidetzen baitute (Lara, 2016). Horrez gain, musikaren bidez gela berean dauden haurren interakzioa bultzatzen da, AEN duten haurren inklusioa eta elkar eragina areagotuz. Izan ere, taldeko ekintzek konfiantza hartzen, taldeko pertenezia sentimendua sendotzen eta taldean moldatzen laguntzen dute (Leal eta Palacios, 2018). Gainera, musika AEN duten haurren interesa eta jakinmina pizten du eta honek bidea irekitzen du musikoterapeutarekin eta besteekin elkar eragiteko. Era berean, musikoterapiak komunikazioa sustatzen du. Musikaren izaera ez berbalak, askatasunez emozioak, kezak edota nahiak adierazteko aukera eskaintzen du (Leal eta Palacios, 2018) eta bidea aurkitzen dute musika baliabideen bidez, instrumentuak jo, marrazketa musikala egin, dantzatu edo abestu (Calleja et al., 2016). Bestalde, musikoterapeutek giro atsegin eta lasaia eta ez errepikakorra bultzatzen dute, soinu eta isiluneekin lan eginez eta soinu, ahots, mugimendu edo jokabide errepikakorrak jolasean transformatuz (Sánchez, 2017).

Bukatzeko, ikerketek frogatu dute hainbat musikoterapia saio jarraitu dituzten erabiltzaileek aurrerapen handiak egin dituztela eta saioak oso onuragarriak izan direla euren garapenerako (Garrote et al., 2018).

2.6.2.2. Hizkuntzaren Nahaste Espezifikoa (HNE)

Hizkuntzaren Nahaste Espezifikoa (hemendik aurrera HNE) hizkuntza bere modalitate guztietan (hitzezkoa, idatzizkoa, ez-hitzezkoa edo bestelakoak) eskuratzeko

eta erabiltzeko zailtasun iraunkorrak izatea da, ulermen eta adierazpenen urritasunek eraginak (American Psychiatric Association, 2014).

Musikoterapia oso tresna baliagarria izan daiteke HNE duten haurren hizkuntzaren garapenerako, musika eta hizkuntzak ezaugarri komun asko partekatzen dituztelako (Navarro, 2012).

Musikoterapiak soinuak eta musika erabiltzen ditu baliabide ez berbal bezala, eta honek HNE duten haurrekin komunikatzea errazten du, soinu, isilune, erritmo edota musikaren bidez adierazteko eta besteak ulertzeko aukera zabaltzen delako. Hau da, haurrei hitzen bidez adieraztea zaila egiten zaiena, musikaren bidez, alternatiba bat aurkitzen dute adierazi nahi dutena azaleratzeko (Herrero eta Pérez, 2017). Ikerketek frogatu dute musikoterapia saioen bidez, HNE duten haurren fonologia zein ulermen, adierazpen eta sormen gaitasunak handitzen direla. Alde batetik, musikoterapiak ahoskera pixkanaka hobetzen eta hiztegi berria barneratzen laguntzen du. Horrez gain, aurreko arloetan aurrerapausoak ematean, haurren konfiantza handitzen da eta ahal duten neurrian hitzekin komunikatzen hasten dira. Hitzekin azaldu ezin dutena, musikaren bidez adierazten dute, instrumentuak, soinuak edota isiluneak erabiliz. Izan ere, lehen aipatu den bezala, emozioen adierazpenerako, musika oso erabilgarria izaten da, emozioak identifikatzea eta hitzekin adieraztea zaila egiten zaienean. Beste aldetik, ipuin eta istorio soinudunen bidez, HNE duten haurren arreta deitzen da eta honek istorioan murgiltzen, ipuina jarraitzen eta pixkanaka hitz batzuk ulertzen laguntzen die. Azkenik, musikoterapiak HNE duten haurren sormena handitzen laguntzen du. Hizkuntza murriztua izateak gaitasun sinbolikoa ez izatea hain garatua eragiten du. Horrenbestez, musikarekin hizkuntza garatzen joaten denean, baita gaitasun sinbolikoa eta sormena ere, haurren produkzio eta inprobisazioetan islatzen dena (Herrero eta Pérez, 2017).

Beraz, musika HNE duten haurrentzat, adierazteko oinarritzko bidea bihurtzen da (Navarro, 2012) eta ikusi da musikak emaitza onuragarriak erakusten dituela ez bakarrik bere eraginengatik, baizik eta haurren interesa eta gozamenarengatik. Musika baliabide erakargarria eta ezberdina da hitzik gabe espresatzea ahalbidetzen duena (Herrero eta Pérez, 2017). Horrenbestez, musikaren bidez hizkuntza eta arlo honekin lotuta dauden alderdiak ikasteaz gain, haurrek hitz zehatzak aurkitu arte, euren ideiak, emozioak, nahiak edota kezkek adierazteko bidea aurkitzen dute.

2.6.2.3. Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (ADHN)

Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua (hemendik aurrera ADHN) jokabide-eredu iraunkorra da atentzio faltan edota hiperaktibitate eta inpulsibitatean oinarritzen dena eta garapenean eragina duena. Sintomak hamabi urtetik baino lehen presente egon behar dira eta hainbat testuingurutan eman behar dira.

ADHNak pertsonen funtzio exekutiboetan eragin negatiboa du, arreta, memoria, inhibizio eta jarreraren kontrola, egokitzapen edo planifikazioan zailtasunak sortuz. Funtzio exekutiboaren kontrola garuneko kortex prefrontalean ematen da eta musikaren prozesaketa garuneko hainbat areatan ematen denez eta hauetako bat kortex prefrontala denez, musika baliabide erabilgarria bihurtzen da funtzio exekutibo hauek estimulatzeko eta lantzeko (Briseño, 2020).

Arreta mantentzeko zailtasunari dagokionez, musikoterapiak paper garrantzitsua betetzen du. Interpretazio musikal, dantza, erritmo sekuentzien jarraipena edo musikaren bidezko ipuinen dramatizazioek haurrek arreta prestatzea bultzatzen dute (Acebes eta Carabias, 2016), alor honetan musikoterapiak onurak izatea eragiten duena.

Bestalde, inpulsibitate eta hiperaktibitateari dagokionez, frogatuta dago musikaren erabilerak eragin positiboa duela haurren hiperaktibitatearen kanalizazioan (Leal eta Palacios, 2018). Alde batetik, musika mugituaren bidez, haurren berezko mugitzeko beharra errespetatzen da eta era berean etengabeko mugitzeko behar hori eta mugimendu ez-borondatezkoak kontrolatzen laguntzen da (Acebes eta Carabias, 2016). Beste aldetik, musika lasaiaren bidez, gorputza arnasketa erlaxatzea eta lasaitzea sustatzen da, arnasketaren erritmo lasaien sakonduz, asaldura egoerak murriztuz eta gorputz osoaren kontrolaz jabetuz (Leal eta Palacios, 2018).

Horrenbestez, musikoterapiaren erabilerak asko lagun dezake ADHN duten pertsonen garapena bultzatzen, frogatuta dagoelako musikak aktibatzen dituen garun areak, lotura zuzena dutela ADHN duten pertsonen kaltetuta dituzten garun aldeekin (Briseño, 2020) eta ADNH duten pertsonen interesa estimulu guztiekiko eta euren artean, musika estimuluekiko handia delako (Acebes eta Carabias, 2016).

3. LANAREN JUSTIFIKAZIOA

Gradu Amaierako lan hau egiteak arrazoi teoriko zein pertsonalak ditu. Jarraian, hasierako atalean, lan honen oinarri eta arrazoi teorikoak eskainiko dira, lana horrela egituratu izana eta esku-hartze bat egin izana azalduko dutenak. Bukaerako paragrafoan, berriz, gai honen aukeraketaren arrazoi pertsonalak eskainiko dira.

Alde batetik, aipatzekoa da musika fenomeno globala dela eta ez dagoela musikarik gabeko kulturarik (Giráldez, 1997), horrenbestez, baliabide oso baliagarria da kulturartekotasuna eta inklusioa bermatzeko.

Musika inklusioa bermatzeko baliabide baliagarria izateaz gain, musikaren beste onura batzuk ere azertu dira. Definizioak dio musikoterapia teknika bat dela musikaz edota bere elementuen erabilera profesionalaz arduratzen dena, pertsonaren hainbat arlo hobetzeko helburuarekin (WFMT, 2011). Izan ere, ondorioztatu da musikoterapiak onura handiak dituela pertsona guztiengan eta oso baliagarria izan daiteke garapenean edo ikaskuntzan zailtasunak dituzten haurren garapena eta inklusioa bermatzeko. Hala ere, nahiz eta gaur egun musikoterapia profesio akreditatua izan (Sabbatella, 2011), normalean estatuan bere erabilera, elkarte, asoziazio edo klinika pribatuetara mugatzen da eta bere onurak handiak izan arren, hezkuntza arloan, ez da ia erabiltzen eta haurrak ez dira aberasten musikoterapiak eskaintzen dituen onuretz.

Beste aldetik, Gradu Amaierako Lan honen gaiaren aukeraketan, arrazoi pertsonalek ere eragina izan dute. Hezkuntza Berezia asko interesatzen zaidan arloa da eta gaur egungo haurren kultura eta erritmo aniztasuna ikusita, oso esanguratsua eta beharrezkoa iruditzen zitzaidan baliabide eta esku-hartze bat diseinatzea inklusioa eta garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak dituzten haurren garapena sustatzeko. Bestalde, musika arte itzela iruditzen zait. Pianoa jotzen dut eta musikaren bidez espresatzeko, sentitzeko, ikasteko, mugitzeko, ulertzeko, lasaitzeko, gozatzeko, garatzeko etab. aukera izaten dut. Horrenbestez, musika eta Hezkuntza Berezia batzeak zer nolako eragin positiboak dituen bilatu eta behatu nahi nuen. Are gehiago, 2018an Vitoria-Gasteizko Haur Hezkuntzako Graduako 2.Mailara Gasteizko Musikoterapia AgrupArte Institutua joan zen, musikoterapiaren bidez, zailtasunak eta nahasteak dituzten pertsonak nola laguntzen zituzten azaltzera. Hitzaldi hau liluratu zitzaidan eta egia esan, gogo handiak

nituen musikoterapia eta bere onurei buruz ikasteko eta esku-hartze inklusibo eta esanguratsu bat diseinatzeko.

4. LANAREN HELBURUA

Lan honen helburu nagusia musikoterapiaren bidez esku-hartze inklusibo bat diseinatzea eta martxan jartzea da. Hala ere, helburu espezifikoak proposatzen dira:

- Bilaketa bibliografikoa egitea eta musikoterapeuta profesionalen kolaborazioa lortzea.
- Haur Hezkuntzan eta Hezkuntza Berezian dituen onurak aztertzea.
- Musikoterapiaren onurak ikusaraztea.

5. ESKU-HARTZEA

Jarraian, Gasteizko 5 urteko gela batentzat diseinatutako musikoterapia esku-hartze inklusibo bat aurkeztuko da, esku-hartze honen helburua, testuingurua, metodoa, diseinua, ekitea, ebaluazioa, ondorioak eta hobekuntza proposamenak deskribatuz.

Esku-hartzearen abiapuntua musikoterapiak Hezkuntza Premia Bereziak dituzten haurren garapenean dituen onurak behatzea zein ikusaraztea eta hurrei musikoterapia saio onuragarriak eskaintzea da.

Aurten, Gasteizko Ikastola bateko 5 urteko gela batean, behatu da garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak dituzten bi haur daudela eta musika gelako dinamikan oso gutxitan erabiltzen dela. Hori dela eta, Gasteizko AgrupArte Musikoterapia Institutuarekin elkartu eta musikak inklusioan zein garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak dituzten haurren garapenean dituen onurak ikusi ondoren, erabaki da musikoterapia esku-hartze inklusibo bat aurrera eramatea. Esku-hartzearen begirada garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak dituzten haurren beharretan jarriko da. Hala ere, esku-hartzea inklusiboa izan dadin, 5 urteko gela osoan egingo da, haur guztientzat onuragarria izateko.

5 urteko gela honen egunerokotasuna, dinamika eta beharrak aztertu dira eta musikoterapiaren helburu, funtzionamendu eta egiteari hurbilduz, erabaki da

musikoterapiarekin emozioen adierazpen eta autorregulazioari, harreman sozialei, lasaitasunari, arreta mantentzeari, komunikazioari eta inklusioari laguntzea, gela honen behar nagusiak baitira.

Bukatzeko, esan beharra dago, ezinezkoa dela musikoterapia saio formalak aurrera eramatea, aurretik aipatu bezala, musikoterapia, musikoterapeuta profesional batek aurrera eraman behar duelako, jarraipen eta iraunkortasuna behar duelako eta saioak hartzaileen behar espezifikoetara bideratuta egon behar direlako (Belin, 2008). Beraz, kasu honetan, aurrera eramango duena, musikoterapetua profesionala ez denez, denbora mugatua dagoenez eta gelan, 25 haur daudenez, ezinezkoa da musikoterapia saio formalak aurrera eramatea. Hala ere, Gasteizko Musikoterapia Elkartearekin kontaktatu eta informatu ondoren (Pereiro S., komunikazio pertsonala, 2021eko otsailaren 24a), musikoterapia diziplinara hurbilketa bat egingo da, hainbat saio praktikan jarriko dira eta hauek dituzten onurak behatuko dira.

5.1. Esku-hartzearen helburua

Proiektu honen helburu nagusia entzuketa, gorputzezko inprobisazio eta adierazpena, inprobisazio eta sorkuntza instrumental eta ahozko kantatzearen bidez musikoterapiaren onurak haurrengan behatzea eta haurrei musikaren bidez garatzeko aukera eskaintzea da. Hainbat gelako egoera lagunduko dira, hala ere, esku-hartze honen kasuan bost helburu espezifiko ikuskatzen dira:

- Arreta eta kontzentrazioa.
- Harreman sozialak areagotzea.
- Emozioen adierazpen eta erregulazioa sustatzea.
- Lasaitasuna kudeatzea.
- Kulturartekotasuna bultzatzea eta inklusioa bermatzea.

5.2. Testuingurua

Esku-hartze hau Gasteizko Ikastola Kontzertatu batean aurrera eraman zen, 5 urteko gela batean zehazki, non 25 haur zeuden. Gela hau zabala eta argitsua zen eta hainbat txokoetan banatuta zegoen: hizkuntza-txokoa, mugimendu-txokoa, txoko sinbolikoa, matematika-txokoa, IKT txokoa eta plastika-txokoa. Txoko bakoitzak bere

helburu eta arauak zituen eta haurrak askatasunez mugitzen ziren txokoetatik klaseko hainbat orduetan, zehazki zirkulazio libreari zegozkion orduetan.

Egunak ordutegi malgua jarraitzen zuen eta harrera asanblada, zirkulazio librea, lanketa, patioa, bazkalordua, zirkulazio libre/lanketa eta patioan antolatzen zen, goizeko 09:30tan hasia eta arratsaldeko 16:30etan bukatuta.

Bestalde, ikasleei dagokienez, aniztasuna gizartean beti presente dagoen fenomeno bat da eta gela honetan ere, ohikoa den moduan aniztasuna zegoen. Hasteko, genero-aniztasunari dagokionez, klaseko 10ek definitzen zuten euren burua mutil bezala eta 15ek neska bezala. Kultur-aniztasunari erreparatuz, hau ere presente zegoen, ikasle guztiak ezberdinak ziren heinean, kultura eta identitate ezberdina zuten. Bestalde, jatorri eta etnia aniztasunari dagokionez, hau ez zen oso handia, hala ere, bazeuden kanpoan jaio ziren haurren hainbat guraso, (Hego Amerika, Afrika, Europako Ekialdea eta Ipar Europa). Hizkuntza-aniztasuna, berriz, ez zen hain handia, euskara eta gaztelania nabarmentzen ziren gehienbat eta soilik errumanieraz pixka bat zekien haur bat zegoen. Horrez gain, gaitasun aniztasuna zegoen. Haur bakoitzak bere erritmoa zuen eta haur batzuk zailtasunak eta erraztasunak zituzten garapen-arlo ezberdinetan. Aipatzekoa da bi haur zeudela komunikazio, emozioen adierazpen, harreman sozial, arreta eta lasaitasunaren arloetan zailtasun handiegiak zituztenak. Momentura arte, ez zuten diagnostiko argirik, hala ere, hainbat terapia elkarrean laguntza jasotzen ari ziren estimulazioa jasotzeko, garatzeko eta klasean hezitzaile baten laguntza lortzeko. Azkenik, maila-sozial aniztasunari dagokionez, gehienena ertain-altua zela ondoriozta daiteke.

5.3. Metodoa

Lehenik, behaketa sakon bat egin zen non behar espezifiko eta orokor batzuk identifikatu ziren. Hasieran, behaketa ez-sistematizatua burutu zen, non, gelako egunerokotasuna orokorrean behatu zen. Ondoren, klasean erabilitako baliabideei eta garapen-arlo ezberdinei, arlo sozial, kognitibo, afektibo-emozionalei zehazki, arreta berezia eskaini zitzairen, egoerak dokumentatuz, oharrak jasoz eta behaketa taula batean

item zehatzak neurtuz. Horrez gain, gelako tutorearekin hitz egin zen eta honek eskaintako iritzi eta datuak behaketarako kontuan hartu ziren.

Honek guztiak aukera eman zuen gela osoaren behar orokor eta garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak zituzten haurren behar zehatzak identifikatzeko.

Jarraian aurkezten dira orokorrean gela osoan behatu ziren **behar orokorrak**:

- Haur guztien adierazpen eza: talde handian elkartzen zirenean, klaseko asanbladetan adibidez, haur askok ez zuten ia hitz egiten.
- Kulturartekotasunaren sustapen eza: klasean erabiltzen ziren baliabide asko nahiko etnozentrismak ziren eta ez zen aniztasuna (etnia, maila sozial, gaitasun) ia kontuan hartzen.
- Partaide guztien elkarlan eskasa: gelako haur guztien inklusioa lantzen eta bermatzen zen, haur guztiek ekintzetan parte-hartzen, askatasunez erabakitzen eta elkarri laguntzen. Hala ere, ohikoa denez, askotan talde berdinetan elkar eragiten zuten eta batzuek ez zuten beste batzuekin ia kontakturik.
- Emozioak adierazteko zailtasuna: nahiz eta Ikastolan proiektu bat landu non emozioak baliabide ezberdinekin lantzen ziren, haur batzuei asko kostatzen zitzairen emozioak ulertzea, adieraztea eta erregulatzea.

Jarraian aurkezten dira garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak zituzten haurrengan behatu ziren **behar espezifikoak**:

- Emozioak erregulatzea
- Komunikatzea, adieraztea
- Taldearekin komunikatzea
- Arreta mantentzea
- Lasaitasuna lortzea

Bestalde, 5 urteko gelaren behaketa eta beharren identifikazioa egin ondoren, 2021eko otsailaren 24an, Gasteizko AgrupArte Musikoterapia Institutuko musikoterapeuta profesional batekin, Sheila Pereiro deitua, elkarrizketa erdi-gidatu bat burutu zen. Elkarrizketak ordu bete iraun zuen eta hainbat gai jorratu ziren musikoterapiaren inguruan, besteak beste, helburuak, Institutuaren saioen egitura eta bertan erabiltzen diren teknikak, onurak, erabiltzaileak edo musikoterapeuten perfil

profesionala. Horrez gain, 5 urteko gelaren beharrak partekatu ziren eta hainbat ideia, gomendio zein iritzi elkarbanatu ziren esku-hartzearen diseinua osatzeko. Azkenik, musikoterapiak eskaintzen duen inklusio gaitasunari buruz hausnartu zen eta ondorioztatu zen zein garrantzitsua den haurren garapenerako musikari erabilera egokia eta estimulatzailea ematea.

5.4. Esku-hartzearen diseinua

Jarraian, Musikoterapiako esku-hartzearen diseinua aurkezten da. Bertan, kompetentzia, helburu, eduki, ebaluazio eta jardueren sekuentzia zehazten dira. Kompetentzia, helburu orokor eta edukiei kodigo batzuk laguntzen diete, sekuentzian agertuko direnak kompetentzia, helburu orokor eta eduki hauei erreferentzia egiteko. Kompetentzia eta helburu orokorrak Haur Hezkuntzako Curriculumetik (237/2015 Dekretua) hartuta daude. Edukiak eta lorpen-adierazle gehienak, berriz, esku-hartze honetarako diseinatu dira.

5.4.1. Kompetentziak:

5.4.1.1. Oinarrizko zehar-kompetentziak

K.1	Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako kompetentzia
K.2	Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
K.3	Elkarbizitzarako kompetentzia
K.4	Ekimen eta espiritu ekintzailerako kompetentzia
K.5	Norbera izaten ikasteko kompetentzia

5.4.1.2. Oinarrizko kompetentzia espezifikoak

K.6	Hizkuntza eta literaturako kompetentzia
K.7	Kompetentzia sozial eta zibikoa
K.8	Arterako kompetentzia
K.9	Kompetentzia motorra

5.4.2. Helburu orokorrak

5.4.2.1. Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua

H.1	Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko.
H.2	Ekimenak abiatzea eta norberaren ekintzak planifikatzea eta sekuentziatzea, egiteko errazak edo arazo-egoerak ebazteko eta nor bere buruaren gaineko konfiantza-sentimendua handitzeko; frustrazio txikiak onartzea, sortzen zaizkion zailtasunak gaintzeko jarrera adieraztea eta gainerako pertsonengandik behar den laguntza bilatzea.
H.3	Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea, norberaren jokabidea erregulatu eta norberaren eta gainerako pertsonen beharrietara egokitzea, eta sumisio nahiz nagusitasuneko jarrerak baztertzea.
H.4	Hurbilean zer gizarte talde dituen jakitea eta haiengana, haien kultura-ekoizpenetara, balioetara eta bizimoduetara jarrera irekiz gerturatzea, konfiantza, errespetu eta balioespeneko jarrerak lantzeko.

5.4.2.2. Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpen eremua

H.5	Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.
H.6	Hizkuntza askotarikoen komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta tresna horiez gozatzea, norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrietarak, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta azaltzeko.
H.7	Gainerako haurren eta helduen mezuak ulertzea eguneroko bizitzako egoeretan, eta hartu-eman horietako arauak ikastea, komunikatu nahi dena interpretatzeko.
H.8	Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilia, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.
H.9	Ahozko hizkuntza arian-arian erabiltzea eta balioestea norberaren portaera eta elkarbizitza erregulatzeko.

5.4.3. Edukiak

5.4.3.1. Adierazpeneko edukiak

E.A.1	Instrumentuak
E.A.2	Emozioak
E.A.3	Melodia
E.A.4	Espazioa
E.A.5	Erritmoa
E.A.6	Kopuruak
E.A.7	Kulturartekotasuna eta inklusioa
E.A.8	Gorputz tonua

5.4.3.2. Prozedurazko edukiak

E.P.1	Bikoteak instrumentuarekin eskainitako informazioa ulertzea eta adieraztea
E.P.2	Zentzumenak gorputza eta kanpo-errealitatea arakatzeko erabiltzea eta zer sentazio eta pertzepzio izaten dituen ezagutzea
E.P.3	Arte trebetasun eta teknika oinarrizkoak erabiltzen hastea
E.P.4	Arte-adierazpenak baliatuz adieraztea eta komunikatzea gertakariak, sentimenduak, emozioak, bizipenak eta ametsak
E.P.5	Informazioa ulertzea eta adieraztea
E.P.6	Ideiak sortu eta adieraztea
E.P.7	Proiektu kolektiboak egiten parte-hartzea eta inguruneko arte-ekoizpenen gaineko interesa izatea
E.P.8	Gorputza eta emozioak autoerregulatzea
E.P.9	Gorputza eta mugimenduak egokitzea, adierazpenak egin edo komunikatzeko asmoarekin, pertsonen, espazioen, denboraren eta objektuen ezaugarrien arabera.
E.P.10	Hainbat kulturetako hizkuntzak
E.P.11	Etnia, jatorri, gaitasun, kultura ezberdineko pertsonen irudietara gerturatzea

5.4.3.3. Jarrerazko edukiak

E.J.1	Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa lantzea
E.J.2	Elkarlana, lankidetzeta eta errespetua taldean ikasteko zereginetan
E.J.3	Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, ezberdintasunak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea

E.J.4	Kulturartekotasun eta inklusiozko jarrerak izatea
E.J.5	Nork bere buruarengan konfiantza izatea

5.4.4. Ebaluazioa

Ebaluazio eta autoebaluazioa saio bakoitzaren ostean egingo da eta hainbat tresna erabiliko dira. Alde batetik, behaketaren bidez, zehaztutako lorpen-adierazleak kontuan hartuz, ebaluazio-irizpide batzuk definituko dira. Ebaluazio-irizpide horiek behaketa-aula bat sortzeko erabiliko dira, saioa bukatu ondoren, osatuko dena. Jarduera bakoitzeko lorpen-adierazleak ebaluatzeko behaketa-aula bat osatuko da (2.Eranskina). Beste aldetik, autoebaluaziorako ikasleen partetik feedback-a jasoko da. Hori dela eta, galdera batzuen bidez, euren iritzia jasoko da eta bukaeran, semaforo batean zenbat gustatu zaien saioa islatuko dute (3.Eranskina). Azkenik, praktiketako tutorearen iritzia, ikuspegia eta hobekuntza proposamenak jasoko dira eta hau guztia beste taula batean dokumentatuko da.

5.4.5. Sekuentzia

5.4.5.1. 1. Jarduera: Imitazio Musikalak

Azalpena: Klasera hainbat instrumentu eramango dira musika sortzeko erabiliko direnak (4.Eranskina). Jarduera honetan, haurrak binaka jarriko dira, zoriz egindako bikotetan eta bikoteko partaide bakoitzak besteak egiten dituen soinuak imitatu beharko ditu. Instrumentu guztietatik pasatuko dira, hauek ezagutzeko eta manipulatzeko.

1. Taula: Imitazio Musikal jardueraren deskribapena:

Helburu espezifikoak	Elkarreragin sozialean instrumentuekin imitazio musikalak egitea, parte-hartuz, melodiak sortuz, adieraziz, bestea entzunez eta txandak errespetatuz, arreta eta kontzentrazioa bultzatzeko eta elkarrekin aritzeko								
Gaitasunak	Helburu orokorrak			Edukiak					
-K1	-K2	-K3	-H2	-H3	-H4	-EA1	-EA3	-EA5	
-K4	-K6	-K7	-H6	-H7	-H8	-EP1	-EP2	-EP6	
-K8	-K9					-EJ1	-EJ2		
Lorpen-adierazleak									
Instrumentuak ezagutu			Arreta prestatu dute			Elkarreragin sozialean ibili			

dituzte eta eurekin melodiak sortu dituzte.	imitazio musikalak entzuteko eta sortzeko.	dira txandak errespetatuz.
Jarduera mota	Jarduera erdi-gidatua	
Espazioa	5 urteko gela	
Denbora	30 minutu	
Baliabideak	Perkusiozko instrumentuak: 4 klabe, 4 kutxa txinatar, 2 güiro, 4 sonailu, 4 maraka, 4 triangelu, 6 krotalo (4.Eranskina)	

5.4.5.2. 2. Jarduera: Emozioak

Azalpena: Dinamika honetan hainbat musika-pieza jarriko dira, emozio eta sentimendu ezberdinak transmititzen dituztenak (6.Eranskina). Haur batzuei emozioen ulermen eta adierazpena zaila egiten zaienez, emozioak lamina inklusiboetan irudikatuta egongo dira (5.Eranskina). Hasieran, laminak aurkeztuko dira eta emozio horiei buruz hitz egingo da (Zer sentitzen du? Nola dakizu? Non sentitzen du hori? Zelan adierazten du? Zerk eragina izan daiteke? Zuek noiz sentitzen duzue hau?). Ondoren, pixkanaka abestiak jarriko dira eta musika gelditzean, musika horrek burura ekarri dien emozioaren laminara gerturatzerara eta zergatia adieraztera animatuko zaie.

2. Taula: Emozioak jardueraren deskribapena:

Helburu espezifikoak	Jatorri ezberdinetako musika, sentitzen duten emozioekin lotzea, hainbat abesti jarri, hauen erritmora mugituz eta musika gelditzean emozio txartelei gerturatuz, eta hauei buruz hitz eginez, emozioak identifikatzeko, adierazteko eta erregulatzeko.											
Gaitasunak	Helburu orokorrak			Edukiak								
-K1 -K2 -K4 -K5	-H2	-H3	-H5	-EA2	-EA4	-EA7	-EP4	-EP6	-EP8	-EP11	-EJ3	-EJ5
Lorpen-adierazleak												
Emozioak identifikatu dituzte	Musika sentitu duten emozioarekin lotu dute eta horren zergatia azaldu dute						Errespetuz aritu dira					
Jarduera mota	Jarduera erdi-gidatua											
Espazioa	5 urteko gela											

Denbora	30 minutu
Baliabideak	Musika entzuteko tresna Musika sailkapena (6.Eranskina) Emozio-txartelak (5.Eranskina)

5.4.5.3. 3.Jarduera: Taldekatzeak

Azalpena: Dinamika honetan, jatorri ezberdinetako abesti eta haur kantak jarriko dira (7.Eranskina). Musika gelditzean, haurrak kopuru ezberdineko taldeetan elkartuko dira eta talde horretan, musikarekin dantzatu eta abestu. Modu honetan, euren artean antolatu beharko dira eta talde ezberdinetan etengabe elkartu. Dinamika hasi aurretik, zehaztuko da jatorri ezberdineko abestiak entzungo direla.

3. Taula: Taldekatzeak jardueraren deskribapena:

Helburu espezifikoak	Kopuru ezberdinetako taldekatzeak egitea, jatorri ezberdinetako haur kantak jarri eta geldituz, etengabe gelakide guztiakin elkar eragiteko.								
Gaitasunak	Helburu orokorrak			Edukiak					
-K1 -K3 -K6 -K7 -K8	-H1	-H3	-H4	-EA4	-EA6	-EA7	-EP5	-EP7	-EP9
	-H7	-H9		-EP10	-EJ1	-EJ2	-EJ3	-EJ4	
Lorpen-adierazleak									
Zehaztutako kopuruetan elkartu dira	Adiskide gehienekin elkartu dira				Errespetuz eta elkarlanean aritu dira				
Jarduera mota	Jarduera erdi-gidatua								
Espazioa	5 urteko gela								
Denbora	30 minutu								
Baliabideak	Musika entzuteko tresna Musika sailkapena (7.Eranskina)								

5.4.5.4. 4.Jarduera: Ipuin Musikala

Azalpena: Kulturartekotasuna sustatzen duen ipuin bat irakurriko da, “Kamilo Krokodiloa” (8.Eranskina), non haurrak ipuinaren protagonistak izango diren eta horretarako, instrumentuen bidez ekintzak egingo dituzten.

Instrumentu kopuruak taldekatze kopuru zehaztuko du. Taldeak, aukeratzen duten instrumentuaren arabera egingo dira eta pertsona askok instrumentu bera aukeratzen badute, zozketa egingo da. Hala ere, ipuina behin baino gehiagotan kontu daiteke eta instrumentuak aldatzen joan. Modu honetan, sortuko diren taldeak aleatorioak izango dira, betiko taldeak saihestuz eta pertsona berriekin elkar eragitea bultzatuz. Instrumentuak aukeratu eta taldeak egin ostean, talde bakoitzari bere pertsonaia egokituko zaio eta haur bakoitzari medaila bat emango zaio bere instrumentu eta pertsonaiaarekin, honekin gehiago identifikatzeko (9.Eranskina).

4. Taula: Ipuin Musikala jardueraren deskribapena:

Helburu espezifikoak	Kamilo Krokodiloren ipuin inklusiboarekin, ipuin musikal bat egitea, bakoitzak instrumentu bat eta ipuinaren pertsonaia bat izanda, bere txandan instrumentua joz eta musika sortuz, arreta eta kontzentrazioa bultzatzeko eta kulturartekotasuna bultzatzeko.								
Gaitasunak	Helburu orokorrak			Edukiak					
-K1 -K2 -K3 -K4 -K6 -K7 -K8 -K9	-H2	-H3	-H4	-EA1	-EA5	-EA7	-EP3	-EP5	-EP6
	-H6	-H8		-EP7	-EJ1	-EJ2	-EJ3	-EJ4	
Lorpen-adierazleak									
Instrumentuak ezagutu dituzte	Arreta prestatu dute instrumentua bere txandan jotzeko eta kulturartekotasun mezua ulertu dute						Errespetuz aritu dira		
Jarduera mota	Jarduera gidatua								
Espazioa	5 urteko gela								
Denbora	30 minutu								
Baliabideak	Perkusiozko instrumentuak: 4 klabe, 4 kutxa txinatar, 2 güiro, 4 sonailu, 4 maraka, 4 triangelu, 6 krotalo (4.Eranskina) Ipuina: Kamilo Krokodiloa (8.Eranskina) Medailak (9.Eranskina)								

5.4.5.5. 5.Jarduera: Erlaxazioa

Azalpena: Dinamika hau bi ataletan bananduko da:

1.Atala: Erlaxazioa gorputz-eskema lasaitzearekin hasiko da. Haur batek etengabe eskuekin jolasean dagoela aprobetxatuz, erlaxazioa eskuekin mugimendu lasaiak

egitearekin hasiko da. Musika lasaiaren laguntzaz, pixkanaka gorputz osoa lasaitzen joango gara. Erlaxazioa, musikoterapiaren teknika harkorra da, eta oraingoan erlaxazioa 1938ko Jacobson-en gihar erlaxazio progresiboaren (RMP) laguntzaz aurrera eramango da (Grocke eta Wigram, 2007). Jacobsonen metodo hau jarraituz, giharrak pixkanaka tenkatu eta lasaituko dituzte eta arnasketaren kontziente izango dira. Horrez gain, bakoitzak bere buruari masajeak emango dizkio.

2.Atala: “Imagen guiada con música” (GIM). Atal honetan, musika lasaiaren laguntzaz, istorio bat osatzen joango gara, hurrek euren buruan irudikatuko dutena. Metodo hau, musikoterapiaren teknika harkorra da, Helen Bonny-k 1970an sortua. Saio honetan aurrera eramango den metodoa Bonny-ren aldaera sinple eta motzagoa da, Brusciak (1997) honela definitzen duena: “El cliente proyecta libremente imágenes en la música mientras se encuentra en un estado de conciencia alterada y dialogando con el terapeuta”. Jarduera honetan GIM-ren aldaera bat egingo da. GIM metodoa banakoei bideratuta dago ez haur talde hain handiei, terapeutak musika aurrera doan ahala, elkarriketa bat baitu, hartzailea sentitzen ari dena ulertzeko. Horrenbestez, oraingoan, atal batzuk zuzenduak izango dira, esaten dena, hurrek euren erara imajinatzeko.

5. Taula: Erlaxazioa jardueraren deskribapena:

Helburu espezifikoak	. Gorputza erlaxatzea, musika, soinu eta mugimendu lasaien bidez, asaldura murrizteko eta lasaitasuna lortzeko								
Gaitasunak	Helburu orokorrak			Edukiak					
-K1 -K2 -K5 -K6 -K9	-H1	-H2	-H5	-EA4	-EA5	-EA7	-EA8	-EP2	-EP5
	-H8			-EP9	-EJ1	-EJ2	-EJ4	-EJ5	
Lorpen-adierazleak									
Gorputz tonuaren urduritasun eta lasaitasun egoerak bereizten dituzte	Masaje eta istorioaren bidez erlaxatu dira						Errespetuz aritu dira		
Jarduera mota	Jarduera gidatua								
Espazioa	5 urteko gela								
Denbora	30 minutu								
Baliabideak	Musika-sailkapena (10.Eranskina)								

5.5. Inplementazioa

Behin jarduerak diseinatuta, hauek 2021eko martxoan zehar aurrera eramán ziren.

Lehenengo jarduera, “Imitazio Musikalak” deitua, martxoaren 11an, arratsaldean, egin zen. Jarduera egin aurretik, instrumentuak zenbatu eta taldekatu ziren haur guztiek instrumentua izateko eta bikoteek familia bereko instrumentua izateko. Jarduerari hasiera emateko, 10 minutu eman ziren instrumentuak banan-banan ateratzen eta aurkezten, aurretiko ezagutzak ikusteko eta hurrek instrumentuen izena eta jatorria ezagutzeko. Lehenengo aldia zen instrumentuak gelan erabiltzen zirela, eta ondorioz, urduritasuna nabaritzen zen. Jardueraren urratsak deskribatu ziren, imitazio musikalak nola egiten ziren azalduz eta “aldaketa” esatean alboan zuten bikoteari instrumentua aldatu behar ziotela esanez. Behin ziurtatuta ulertzen zela, binaka jarri ziren eta bikote bakoitzari banan-banan instrumentu-pare bat eman zitzairen. Imitazio musikalak egiten hasi ziren, baina gero bikote batzuk euren instrumentuaz aspertu ziren eta gelatik mugitzen hasi ziren beste bikote batzuekin instrumentuak trukatu. Zarata nahiko handia zen eta horrenbestez, “aldaketa” hitza ez zen entzuten. Hala ere, hurrek euren kabuz, gainontzeko gelakideekin instrumentuak aldatzen eta hauek manipulatu egon ziren 20 minutu gutxi gora behera. Hainbat instrumentu manipulatu ondoren, bakoitzak nahi zuenean instrumentua kutxan uzten zuen eta txokoetara joaten zen.

Hala ere, azpimarratu beharrekoa da, zailtasunak ikaskuntzan zituzten hurrak oso adi, lasai eta pozik ibili zirela lurrean eserita instrumentuak jotzen, erritmoak sortzen eta bere bikoteari entzuten.

Bigarren jarduera, “Emozioak” martxoaren 24an, goizean jarduera egin zen. Jarduera burutu aurretik, emozio-txartel eta galdera batzuk prestatu ziren eta musika-sailkapen luzea egin zen (6.Eranskina). Gelan, emozioak lantzen ari zirela aprobetxatuz, jarduera, beldurrari buruz egindako marrazkiekin lotu zen eta elkarrizketa beldurtuta dagoen emozio-txartelarekin hasi zen. 15 minutu eman ziren emozio-txartelei buruz hitz egiten, bakoitzak bere iritzi, sentimendu eta ideiak partekatuz. Izan ere, oso dialogo interesgarri eta aberatsa sortu zen, non gehienek parte-hartu zuten, hala ere, esan beharra dago, haur batzuek, garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak zuten hurrek

adibidez, oso gutxi hitz egin zutela. Euren parte-hartzea handitzeko, galdera batzuk banan-banan esateko aukera eskaini zen, esaterako, “Noiz sentitzen zara pozik? Zer gustatzen zaizu?” Honen ostean, jarduera azaldu zen, emozio-txartelak gelatik zintzilikatu ziren eta musika jarri zen. Musika gelditzean, haurrak emozio-txartel batera gerturatu ziren eta gero emozio horren aukeraketaren zergatia adierazten zuten. Haur gehienak sentitzen zutenaren arabera mugitzen ziren, beste gutxi batzuk lagunak egiten zuten edo euren gustuen arabera. Garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak zituzten haurrak, musika jarrita zegoen bitartean haur guztiak dantzatzen eta mugitzen zeudenez, pixka bat aztoratu ziren eta zailagoa egin zitzaien entzuten zutenaren arabera emozioa aukeratzea eta aukeraketa horren zergatia adieraztea.

Hirugarren jarduera, “Taldekatzek” deitua, martxoaren 26ko arratsaldean egin zen. Jarduera honen azalpena nahiko azkarra izan zen eta aurretik hautatutako musikarekin 45 minutu dantzatzen eta taldekatzek egiten egon ginen. Egun horretan, haur gutxi joan ziren klasera, hamazazpi hain zuzen ere. Helduokin hogeit hamar ginen eta zenbaki hori kontuan hartuta, kopuruak esaten joaten nintzen. Guztien parte-hartzea, inplikazioa eta inklusioa eman zen eta elkarreragin sozialean ibili ziren denbora osoan. Jarduerarekin bukatzeko hogeit hamar zenbakia esan nuen eta denok batera bukatu genuen.

Laugarren jarduera “Ipuin Musikala”, aurreikusita zegoen bigarren jarduera izatea, imitazio musikalekin lotura zuelako instrumentuak erabiltzen baitziren. Hala ere, ez zen ipuin musikala egiteko momentua, azkenengo boladan ipuin eta lanketa asko egiten ari zirelako eta mugimendurako jarduerak egitea hobesten zen, hori dela eta jarduera honen aurretik, emozio eta taldekatzek jarduerak egin ziren. Ondorioz, ipuin musikala martxoaren 30an, arratsaldean egin zen. Hasieran, instrumentuen izenak gogoratu eta ondoren jarduera azaldu zen. Izan ere, oso argi utzi zen instrumentuak bakoitzak bere txandan bakarrik jo zitekeela, “Imitazio Musikal”-en jardueran instrumentuekin sor daitekeen iskanbila gogoratuz. Behin jarduera azalduta eta ulertuta, instrumentuak banan-banan atera ziren eta haur bakoitzak nahi zuen instrumentua aukeratu zuen. Horrez gain, instrumentu bakoitzari zegokion pertsonaiaren medaila eman zitzaien. Ondoren, froga bat egin zen non pertsonaia bakoitzak, banaka bere instrumentua jo zuen eta behin bakoitzak argi zuela nor zen istorioan, ipuina hasi zen. Adi, entzuten, instrumentuak jotzen eta ipuinaren mezua ulertzen egon ziren eta bukaeran, kulturartekotasunari buruz hitz egin zen. Era berean, garapenean eta ikaskuntzan

zailtasunak zituzten haurrak adi egon ziren entzuten eta bere txandarako itxaroten instrumentua jotzeko.

Azkenengo jardueran hainbat aldaketa bat egin zen. Zuzenean erlaxazio progresiboarekin hasi beharrean, haurren yogarekiko interesaz baliatuz, borobilean zutik jarri, gorputz-atalak pixkanaka mugitu eta aukeratutako musikarekin (9.Eranskina) hainbat yoga jarrera egin ziren. Ondoren, bakoitzak bere buruari masaje txiki bat eman zion eta lurrean etzanda istorio motz bat kontatu zen musikaz lagunduta. Haur askok ez zuten istorioa jarraitu, baina soinu lasaiak entzuten egon ziren, erlaxatzea eragin zuena. Guztira 30 minutu eman ziren jarduerarekin eta nahiko lasaitu ziren.

5.6. Ebaluazioa

Orokorrean nahiko positiboki ebaluatzen da esku-hartze osoa.

Lehenengo jarduera, Imitazio Musikalena, ez zen aurreikusitako moduan atera, hala ere, zehaztutakoa gehienbat lortu zen. Alde batetik, askorentzat ezezagunak ziren instrumentuak ezagutu zituzten eta hauek manipulatu ostean, erritmo eta melodiak sortu zituzten. Beste aldetik, hasiera batean, guztiek lortu zuten arretaz bikotekideak entzutea eta imitazioak egiten saiatzea. Hala ere, askok urduritasuna, berritasuna eta instrumentu guztiak frogatzeko gogoak zirela eta, imitatzeari eta bikotekideari entzuteari utzi zioten eta instrumentuekin sortzeari ekin zioten, lorpen garrantzitsua dena ere bai. Azkenik, nahiz eta askotan txandak ez errespetatu, elkarreragin sozialean aritu ziren, sortzen zituzten erritmoak besteei erakutsiz eta elkarren artean instrumentuak negoziatuz eta trukatzuz. Horrez gain, aipatzekoa da, garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak zituzten haurrak oso adi eta kontzentratuta egon zirela bere bikotearekin instrumentuekin jolasten. Eserita mantendu ziren denbora gehiena instrumentuak elkarrekin manipulatzeko eta erritmoak sortzeko. Beraz, musikarekin lanean egotea eta instrumentuak erabiltzea baliabide erabilgarriak izan dira arreta eta kontzentrazioa bultzatzeko eta elkar eragina sustatzeko.

Emozioen jarduerari dagokionez, helburua nahiko ondo bete zen. Alde batetik, kontzientzia emozionala lortu zen, emozioak identifikatu zituztelako eta emozio bakoitzari izena jarri ziotelako. Horrez gain, zergatik emozio-txarteleko munstroa

horrela sentitzen zen adierazi zuten eta haiek noiz sentitzen ziren horrela azaldu zuten. Beste aldetik, musika entzutean eta emozioen irudiei gerturatzean, zer sentitzen zuten identifikatu zuten eta gero, gehienak gai izan ziren zergatia azaltzeko. Azkenik, errespetuz aritu ziren, besteen iritzi eta erabakiak entzun eta errespetatu zituzten eta bakoitza bere sentimenduetatik abiatu zen, bere buruarengan konfiantza izanez. Garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak zituzten haurrei, hasieran gehiago kostatu zitzaien hitzaldian parte-hartzea, hala ere, banan-banan eta irudien laguntzaz emozioei buruz galdetzean, parte-hartzen zuten. Ondoren, musika ipintzean, askotan zaila egin zitzaien musika emozioekin lotzea eta horren zergatia adieraztea. Agian egoera lasaiago batean, jarduera hau lagungarriagoa izango litzateke. Hala ere, esan beharra dago, musika emozioen identifikazioa eta adierazpena lantzeko erabilgarria izan zela.

“Taldekatzak” jardueraren ebaluazioa oso positiboa da. Espazio osotik mugitzen, dantzatzen eta abesten egon ziren eta musika gelditzean, guztion laguntzarekin zehaztutako kopuruetan elkartu ziren. Adiskide guztiekin aritu ziren eta konturatu ziren guztien beharra eta laguntza behar zutela taldeak osatzeko, errespetuz, guztiak onartzuz eta inor baztertu gabe aritzea eragin zuena.

Aurrera eramandako “Ipuin Musikala”-ren helburua ere nahiko ondo bete zen. Aurretik ezagututako instrumentuen izenak eta jotzeko moduak gogoratu ziren. Horrez gain, adi ibili ziren ipuina entzuten, ulertzen eta bere txandarako itxaroten gero instrumentuarekin erritmo bat sortzeko. Ipuinaren kulturartekotasunaren mezua ondo ulertu zuten, ipuina bukatzean izandako elkarrizketan islatu zena. Azkenik, txandak eta gelakideak errespetatu zituzten. Instrumentuen erabilerak bultzatu zuen adi egotea eta garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak zituzten haurrak arreta presatzen egon ziren euren txanda noiz zen jakiteko.

Azkenengo jardueraren, “Erlaxazioa”-ren urratsak aldatu arren, helburua berdina izaten jarraitu zuen eta nahiko ondo bete zen. Lehenengo atalean, musika, yoga eta erlaxazio progresibo ariketen bidez gorputza lasaitu zuten eta tentsio eta lasaitasun egoeren ezberdintasunak ikusi zituzten. Horrez gain, garapenean eta ikaskuntzan zailtasunak zituen haur bati asko kostatzen zitzaion beste pertsona batek berari masajea ematea eta oraingoan bakoitzak bere buruari masajea ematean, lasaiago ibili zen. Bigarren atalean, askok kontatutako istorioa jarraitu zuten eta berea imajinatzen zuten,

beste batzuk soilik soinuak entzutera mugatu ziren. Hala ere, honek ere lasaitasuna bultzatu zuen.

Esku-hartze guztiaren helburua kontuan izanda, hau nahiko ondo bete zen eta ikusi zen musikaren erabilerak onurak dituela haur guztien garapenean eta inklusioan. Alde batetik, instrumentu eta erritmo berriak ezagutu zituzten, eta gainera, espazio-nozio, kontzientzia emozional eta kantitate kontzeptuetan aurrerapenak egin zituzten hauen ezagutza handituz. Bestetik, arte-adierazpenen (musika, instrumentuak) bidez, ideiak eta emozioak adierazi zituzten, adibidez musika emozioekin lotzean eta zergatia azaltzean edo instrumentuekin erritmo eta melodiak sortzean. Era berean, gorputzaz baliatuz, dantzatzean, taldeka elkartzean, mugitzean edo instrumentuekin jardutean, ideiak eta emozioak adierazi zituzten. Horrez gain, aipatzekoa da besteen ideia, iritzi, emozio eta produkzioak ere entzun eta ulertu zituztela, batzuetan Haur Hezkuntzan zaila dena. Azkenik, errespetuz, gogoekin, elkarreragin sozialean, bata besteari lagunduz eta inor baztertu gabe aritu ziren, kulturartekotasun eta inklusio baloreak sendotzea eragin zuena.

Ebaluazioarekin jarraitzeko, beharrezkoa izan da ikasleen zein irakaslearen feedbacka jasotzea. Alde batetik, ikasleek saio bakoitza bukatzean semaforo batean islatzen zuten zenbat gustatu zitzairen saioa. Orokorrean, oso emaitza positiboak dokumentatu ziren, haur gehienek euren izena goiko aldean, borobil berdean, kokatzen baitzuten. Gainera, euren izena kolore batean kokatzean, zergatia galdetzen zitzairen eta erantzunak dokumentatzen ziren, euren artean, “Asko gustatu zait musikarekin jolastea”, “Oso dibertigarriak dira instrumentuak”, “Oso ondo pasa dut abesten eta dantzatzen guztiekin” “Asko gustatu zait instrumentuekin aritzea, normalean ez ditugulako erabiltzen”, edo “Asko lasaitu naiz, ia lotan geratu naiz eta”.

Aipatutako haurren gogobetetasunak eta erantzunak erakusten dute musika estimulu erakargarria, ludikoa eta esanguratsua dela eurentzat, hortaz, musikari erabilera apropos, estimulatzaile eta terapeutikoa ematen bazaio, oso emaitza positiboak lor daitezke eta garapenean onura handiak izan.

Haurren beste erantzun batzuetatik, hala nola, “aldaketa asko egon dira” edo “zarata asko egon da eta ez nuen entzuten”, hobetzeko alderdiak atera ziren. Hala ere, erantzun hauek erabilitako metodologia eta espazioaren antolakuntzari egiten diote erreferentzia,

bideratzaileak hausnartzea eta hurrengorako, hobetzeko helburuarekin, aldaketak egitea eragiten duena. Izan ere, ikasleen feedback-ari esker, hausnartu da, ekintza batzuetan, hala nola, “Imitazio Musikal” edo “Emozioak”, metodologia ez zela aproposena izan, azalpenak ez zirelako oso argiak izan, espazioa txikia geratu zelako edo hitz egiteko dinamikan, haur batzuek ez zutelako ia hitzik egin. Hala ere, honek hausnartzeko eta hobekuntza proposamenak zehazteko aukera eman du.

Beste aldetik, 5 urteko gela honen tutorearen aldetik ere, feedbacka jaso zen. Irakasleak adierazi zuen ohartu zela musikoterapiaren erabilgarritasuna handia dela eta gustatuko litzaiokeela formakuntza jasotzea musikoterapia ikastolan praktikan jartzeko. Horrez gain, esku-hartzearen ekintza batzuk ikastolan jarraitzen duten emozioen inguruko proiektu baten barne sartuko dute. Azkenik, irakasleak ziurtatu zuen, nahiz eta musikoterapia ezagutza handirik ez izan, hasiko zela musika-baliabideak eguneroko dinamikan gehiago erabiltzen, musikak dituen onurak handiak direlako.

6. ONDORIOAK

Bilaketa bibliografikoa eta aurrera eramandako esku-hartzea kontuan hartuz, jarraian lan osoaren ondorioak deskribatuko dira.

Hasteko, frogatu da musikoterapia teknika esanguratsu eta baliagarria dela Haur Hezkuntzako geletan inklusioa eta haur guztien garapen integrala sustatzeko (Tomás, 2018). Musikoterapiak haurren garapen orokorrean onurak izateaz gain, garapenean edo ikaskuntzan zailtasunak dituzten haurrengan onura zehatz eta bereziak ditu, musikoterapiak Hezkuntza Bereziaren arlora ekarpen handiak egitea eragiten duena. Izan ere, frogatuta dago musikaren erabilerak hainbat garun-arloen aktibazioa eragiten duela, garunaren prozesuen antolakuntza hobetuz eta zailtasunak ikaskuntzan dituzten haurrek kaltetuta dituzten garun-areak estimulatuz (Cano eta Custodio; 2017 Lacárcel, 2003). Hainbat ikerketa egin dira AEN, HNE eta ADHN duten haurrekin, musikoterapiaren eraginkortasuna egiaztatu dutenak (Acebes eta Carabias, 2016; Garrote et al., 2018; Herrero eta Pérez, 2017), eta musikoterapia Hezkuntza Bereziaren arloan gero eta teknika erabiliagoa bilakatzea eragin dutenak. Hala ere, musikoterapia askotan arlo pribatura mugatzen da, hortaz, zailtasunak ikaskuntzan dituzten haurrak

gela arrunta ez den leku batera joaten dira bere gelakiderik gabe, bereiztea ekartzen duena.

Alde batetik, egia da musikoterapiaren helburu garrantzitsu bat behar espezifikoa lantzea dela, hortaz, musikoterapia saioak banakoei edo talde txikiei bideratzeak onura handiagoak ekarriko ditu, saioak pertsonalizatuak izango baitira. Hala ere, gela oso baten behaketa sakona egiten bada, hainbat behar orokor identifika daitezke, musikoterapia saioetan landu daitezkenak eta ondorioz, haur guztien onurarako izan. Izan ere, musikoterapiak hainbat teknika barneratzen ditu hala nola, entzute musikala, instrumentuen inprobisazioa edo gorputz-adierazpena, talde handian oso eragin positiboak dituztenak. Kezka, arazoa edo landu beharrekoa oso pertsonala bada modu indibidualean edo talde txikian egin daiteke, bestela hobesten da talde handian egitea, garapen kognitibo, afektibo-emozional, psikomotorrean onurak izateaz gain, arlo sozialean eta inklusioan ere dituelako.

Aipatu bezala, musikak inklusiorako gaitasuna eskaintzen du. Aurrera eramandako esku-hartzean behatu da musikak hainbat gelako behar eta egoera lantzeko aukera ematen duela inklusioa bermatuz, inklusioa ez delako haurrak aldatzea guztiek gauza bera egin dezaten, baizik eta haur bakoitza bera den moduan izanez, bere kultura, gaitasun eta zailtasunekin, besteekin izatea eta gelako dinamikan parte-hartzea. Horretarako, haurrak aldatu beharrean, testuingurua eta baliabideak aldatu behar dira eta kasu honetan musikoterapiak testuingurua birmoldatzeko eta haur guztiengan onurak eragiteko ahalmena du, guztien parte-hartzea, garapen holistikoa eta inklusioa bultzatuz eta erraztuz.

Bestalde, garrantzitsua da musikoterapia eta Hezkuntza Musikala edo musikaren erabilera ezberdintzea. Musikoterapia ez da soilik musika erabiltzea, teknika honek erabilera profesionala eskatzen du eta ez ditu helburu akademikoak bilatzen (Llamas, 2012). Vitoria-Gasteizko AgrupArte Musikoterapia Institutuko profesional batek zioen, musikoterapia ez dela soilik musikaren erabileran oinarritzen, musikoterapeutek jakin behar dutela alde batetik musikaren erabilera eta estimulazioa aproposa egiten, eta bestetik, harreman interpertsonalak eraikitzen, kudeatzen edota ongi bideratzen (Pereiro S., komunikazio pertsonala, 2021eko otsailaren 24a). Hori dela eta, garrantzitsua da musikari buruz jakitea, baina baita hurrei eta harreman interpertsonalei buruz ere.

Aurrera eramandako esku-hartzeari dagokionez, ondorioztatu da haur guztiek gustura parte hartu zutela, ekintzetan inklusioa bermatu zela eta, musikoterapia zehaztutako beharrak lantzeko erabilgarria izan zela, komunikazioa, elkarreragin soziala, emozioen adierazpena, kulturartekotasuna, lasaitasuna, arreta eta kontzentrazioa sustatu zuelako. Garapenean edo ikaskuntzan zailtasunak zituzten haurrak pozik ibili ziren, musikaz eta musika-baliabideez gozaten eta besteekin elkar eragiten. Musika estimulu erakargarri eta interesgarria izan zen eurentzat eta musika eta musika tresnek aukera zabaldu zieten arreta gehiago mantentzeko, lasaitzeko, emozioak identifikatzeko, adierazteko eta besteekin interakzioan ibiltzeko. Hala ere, egon ziren momentuak non zailtasunak aurkitu zituzten jarduerak ulertzeko, baina metodologia moldatuz, azalpen argiagoak emanez eta musikaz baliatuz, lortu zen dinamikak ulertzea eta hauetan parte-hartzea.

Horrez gain, esan beharra dago ekintzak ez direla egite musikal soiletan geratu behar. Hau da, musika eta musika baliabideak bide esanguratsuak dira helburu batzuk lortzeko, baina musikaz gain, ekintzei testuinguru, elkarrizketa edo hausnarketa bat lagundu behar diete ulertzea, ikastea edota helburua lortzea bermatuko dutenak.

Amaitzeko, esku-hartzeak bilaketa bibliografikoan aztertutakoa praktikan jartzeko eta musikoterapiak dituen onurak behatzeko aukera itzela eman du. Lortu da gelako dinamikan nahiko eskas parte-hartzen zuten haurrek musikazko ekintzetan parte-hartzea eta besteekin elkar eragitea. Gainera, ikusarazi da musikoterapiaren erabilera onuragarria dela, bai zailtasunak ikaskuntzan dituzten haurrentzat bai gainontzeko gelakideentzat eta haur zein hezitzaile guztiek gozatu dute ekintzetan parte-hartzen.

7. MUGAK ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK

Hasteko, aipatu bezala, musikoterapia teknika bat da gehienetan arlo pribatura mugatzen dena eta horrenbestez, ikastetxeetan ez dira normalean musikoterapia saioak eskaintzen. Musikaren erabilerak garunean duen eragina ikusita eta musikaren erabilera terapeutikoak garapenean dituen onurak ikusita, onuragarria izango litzateke ikastetxeetan musikoterapia formakuntzak eskaintzea hezitzaileek diziplina honi gerturatzeko eta musikoterapiaren onuraz garapen orokorrean eta zailtasunak

ikaskuntzan dituzten haurren jabetzeko. Haur Hezkuntzako geletan ohikoa da musika erabiltzea, hala ere, garrantzitsua da musikari erabilera aproposa eta estimulazaileria ematea eta horrek formatzea eskatzen du.

Horrez gain, hobekuntza proposamen bezala, musikoterapia saioei testuinguru bat eskaintzea da, saio bakoitza ez izateko musikarekin egiten den ekintza soil, baizik eta ikasteko, askatzeko, adierazteko, garatzeko etab. unea. Onuragarria izango litzateke saio bakoitzari sarrera eta bukaera edota hausnarketa ematea, kokatzeko, ulermena bermatzeko, elkarrekintza sustatzeko eta hausnartzeko. Era berean, ekintza soil, aleatorio eta bat-batekoak ez izateko, komenigarria izango litzateke erregularitasun bat jarraitzea eta jarraipen bat egitea, funtsa izateko, ohitura hartzeko, haurrak musikoterapiaren onuraz baliatzeko, garatzeko eta aurrerapausoak emateko. Izan ere, aurrera eramandako esku-hartzeak hilabete bateko iraupena izan du, bost saiotan antolatuta eta pixka bat motza gelditu da eraginak ongi ikusteko. Hori dela eta, aproposa izango litzateke musikoterapia proiektuek erregularitasun, luzapen eta jarraipen handiagoa izatea.

Bestalde, esku-hartzearentzat hobekuntza proposamen zehatzak ere planteatzen dira. Hasteko, hasieratik azalpen oso argiak ematea eta espazioa ondo aukeratzea eta antolatzea proposatzen da, instrumentuekin aritzeko esaterako, espazio oso zabala eta irekia hobesten delako. Horrez gain, inklusioa bermatzeko, estrategiak bilatu behar dira normalean parte-hartzen ez duten momentuetan haur guztien presentzia eta parte-hartzea bermatzeko. Esaterako, “Emozioak” edo “ipuin Musikal” jardueretan sortutako hitzaldietan zailtasunak ikaskuntzan zituzten haurrek ez zuten asko hitz egin, hori dela eta, parte-hartzea areagotzeko, banan-banan galderak egitea eta irudiekin ulermena laguntzea proposatzen da.

Azkenik, esan beharra dago oso onuragarria izango litzatekeela ikastetxeek musikoterapia proiektuak jarraitzea, bai musikoterapeuta profesionalek bideratuta bai formakuntza jaso duten hezitzaileek bideratuta, haurren garapen integralerako onura handiak dituelako, zailtasunak ikaskuntzan dituzten haurren garapenean onura esanguratsuak dituelako eta gizartean hain beharrezkoa den inklusioa bultzatzen duelako.

8. ERREFERENTZIAK

- Acebes, A., eta Carabias, D. (2016). El alumnado de primaria con Trastorno por Déficit de Atención (TDAH): la Musicoterapia como herramienta integradora dentro del contexto del aula de música. *Revista Electrónica de LEEME (Lista Electrónica Europea de Música en la Educación)*, (38), 1-16.
- Agudo, I. (2015). La Musicoterapia, una vía de expresión global. *Arteterapia-Papeles de arteterapia y educación artística para la inclusión social*, 10, 175-181.
- American Psychiatric Association (2014). *Guía de Consulta de los Criterios Diagnósticos del DSM-V*: American Psychiatric Publishing.
- Arias, M., Consuelo, V., Escutia M., De la Luz, M., López, J., Ros, R. eta Pérez, A. (2013). Musicoterapia y enfermería. *Enfermería Integral*, (102), 3-6.
- Barrios, N. eta Gómez, M. (2018). Ontopercepción de la música y su relación con la motricidad fina. *Educere*, 22(72), 407-420.
- Belin, S. (2008). *Aplicaciones Didácticas de la Musicoterapia en el aula de primaria*. Ediciones Guillermo Castilla: Málaga.
- Besalú, X. (2002). *Diversidad cultural y educación*. Síntesis.
- Blood, A., Zatorre, R., Bermudez, P. eta Evans, A. (1999). Emotional responses to pleasant and unpleasant music correlate with activity in paralimbic brain regions. *Nature Neuroscience*, 2(4), 382-387.
- Boso, M., Barale, F., Politi, P. eta Emanuele, E. (2006). Neurophysiology and neurobiology of the musical experience. *Functional Neurology*, 21(4), 187-191.
- Botella A. eta De los Ángeles, M. (2016). Aportes de la neurociencia cognitiva a la estimulación auditiva musical de 0 a 6 años. *Revista de Didácticas Específicas*, (15), 6-27.
- Briseño, A. (2020). La influencia de la musicoterapia en la mejora de niveles de atención y percepción de alumnado escolarizado entre 6 y 8 años con

diagnóstico de TDAH. Una propuesta de intervención. *Revista de Investigación en Musicoterapia*, 3, 87-107.

Bruscia, K. (1997). *Definiendo musicoterapia*. Colección Música, Arte y Proceso. Amarú Ediciones: Salamanca.

Calleja, M., Sanz, P., Táraga, R. (2016). Efectividad de la musicoterapia en el Trastorno del Espectro Autista: Estudio de Revisión. *Papeles del Psicólogo*, 37(2), 152-160.

Cano, M. eta Custodio, N. (2017). Efectos de la música sobre las funciones cognitivas. *RevNeuropsiquiat*, 80(1) 60-69.

Corbella, J. eta Doménech, E. (1987). *Bases históricas de la psiquiatría catalana moderna*. Seminari Pere Mata.

De los Santos, M. (2010). La Musicoterapia. *Revista Digital Innovación y experiencias Educativas*, (31).

Del Campo, P. (2013). La Música en Musicoterapia. *Brocar*, (37), 145-154.

Del Moral, M. (2015). *Investigación en Musicoterapia: Análisis de la situación actual en España y propuestas de mejora*. (Doktorego Tesia). Psikologia Fakultatea, Salamancako Pontificia Unibertsitatea, Espainia.

Díaz, M. (2004). La educación musical en la etapa 0-6 años. *Revista Electrónica de LEEME(Lista Electrónica Europea de Música en la Educación)*, (14)

EAEko Hezkuntza, Hizkuntza-politika eta Kultura saila (2016). 237/2015 Dekretua. Haur Hezkuntzako curriculum. EHAA, 9. zk., 2016ko urtarrilak 15, ostirala. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf> . -web orrialdetik berreskuratua.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. (2012). *Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoa 2012-2016*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

- Euskaltzaindia (2015). *Euskaltzaindiaren Hiztegia*.
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabilatatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu
- Galindo, R. (2005). *Cambios curriculares en las ciencias sociales para responder a la multiculturalidad*. Granadako Unibertsitatea, Espainia.
- Garrote, D., Pérez, G., eta Serna, R. (2018). Efectos de la musicoterapia en el Trastorno del Espectro Autista. *Revista Nacional e Internacional de Educación Inclusiva*, 11(1), 175-192.
- Giraldez, A. (1997). Educación musical desde una perspectiva multicultural: Diversas aproximaciones. *Revista Trans Iberia*, (1).
- Grocke, D. eta Wigram, T. (2007). *Métodos receptivos en Musicoterapia: AgrupArte*.
- Hazard, O., Miranda, M. eta Miranda, P. (2017) Music as a therapeutic tool in medicine. *Rev Chil Neuro-Psiquiat*, 55(4), 266-277.
- Herrero, M. eta Pérez, M. (2017). Musicoterapia y trastorno específico del lenguaje. *Revista de Investigación en Musicoterapia*, 1, 48-67.
- Krumhansl, C. (1997). An exploratory Study of Musical Emotions and Psychophysiology. *Canadian Journal of Experimental Psychology*, 51(4), 336-352.
- Lacárcel, J. (2003). Psicología de la música y emoción musical. *Educatio*. (20-21), 213-226.
- Lara, B. (2016). *La musicoterapia con niños autistas*. (Gradu Amaierako Lana). Jaume I Unibertsitatea, Espainia.
- Leal, M.I. eta Palacios, E. (2018). *Musicoterapia y sus beneficios en las necesidades educativas especiales (TDAH)*. (Gradu Amaierako Lana). Hezkuntza Zientzien Fakultatea, Sevillako Unibertsitatea, Espainia.

- Levitin, D. eta Tirovolas, A. (2009). The Year in Cognitive Neuroscience: Current Advances in the Cognitive Neuroscience of Music. *Annals of the New York Academy of Science*, 1156, 211-231.
- Llamas, J. (2012). La imbricación entre Educación Musical y Musicoterapia. *ArtsEduca*, (1).
- Morales, S. (2018). *Música-Persona: Un binomio inseparable. La importancia de la música en el desarrollo infantil/humano*. (Grado Amaierako Lana). Jaume I Unibertsitatea, Espainia.
- Moreira, V. eta Montalvo, J. (2016). El Cerebro y la Música. *Revista Ecuatoriana de Neurología*, 25(1-3), 50-55.
- National Institute of Mental Health (NIH) (2018). Autism Spectrum Disorder. <https://www.nimh.nih.gov/health/topics/autism-spectrum-disorders-asd/index.shtml>
- Navarro, C. (2012). En Pérez, M. (coord.) *La musicoterapia como profesión emergente en el nuevo contexto social. Libro de Actas IV Congreso Nacional de Musicoterapia*. (or.41-54) Editorial Fundación Musicoterapia y Salud.
- Oneca, N. (2014). *Musicoterapia: fundamentos, aspectos prácticos y aplicación a niños hospitalizados*. (Grado Amaierako Lana). Hezkuntza eta Piskologiako Fakultatea, Nafarroko Unibertsitatea, Espainia.
- Palacios, J. (2004). El concepto de musicoterapia a través de la Historia. *Revista Electrónica de LEEME (Lista Electrónica Europea de Música en la Educación)*, (13).
- Pérez, M. (2010). La Musicoterapia. *Revista Digital Innovación y Experiencias Educativas*, (33).
- Poch, S. (1999). *Compendio de Musicoterapia (I eta II)*. Herder Editorial.
- Sabbatella, P. (2011). Registro español de musicoterapeutas (REMTA): Adaptación del registro europeo de musicoterapeutas (EMTR). En Sabbatella, P. (coord.),

Identidad y Desarrollo Profesional del Musicoterapeuta en España. Actas del III Congreso Nacional de Musicoterapia. Cádiz 8-10 Octubre, 2010. Grupo Editorial Universitario.

Sacks, O. (2010). *Musicofilia: Relatos de la música y el cerebro*. Anagrama.

Salamanca, D. (2003). Musicoterapia en Educación Especial. *Pulso*, (26), 129-141.

Sánchez, E. (2017). *La musicoterapia como una vía de expresión y comunicación en el trastorno del espectro autista*. (Gradu Amaierako Lana). Hezkuntza Fakultatea, Alikanteko Unibertsitatea, Espainia.

Tomás, J. (2018). *Aplicación práctica de la musicoterapia para estimular la atención y comunicación en niños con Trastorno del Espectro Autista y Necesidades específicas de Apoyo Educativo* (Gradu Amaierako Lana). Facultat d'educació, Universitat de les Illes Balears, España.

Villagómez, M. (2016). *La musicoterapia en el desarrollo integral del niño y niña*. (Proyecto de Investigación). Unidad Académica de Ciencias Administrativas y Humanísticas. Universidad Técnica de Cotopaxi, Ecuador.

Vescelius, E. (1918). Music and Health. *The Musical Quarterly*, 4(3), 376-401.
https://www.jstor.org/stable/738221?seq=1#metadata_info_tab_contents


Vidal, F. (1881). *La música en sus relaciones con la medicina, estudio especulativo, fisiológico, higiénico y terapéutico*. (Doktorego Tesia). Unibertsitate Zentrala, Espainia.

Wilde, O. (1891). *The Picture of Dorian Gray*. Ward, Lock & Co.

World Federation of Music Therapy (2011). *About WFMT: What is musictherapy?*
<https://wfmt.info/wfmt-new-home/about-wfmt/>

9. ERANSKINAK

1. Eranskina. Musikarekin aktibatzen diren garun areak.



2. Eranskina. Behaketa taulak

2.1. 1.Jarduera: Imitazio musikalak

	Ezer ez	Gutxi	Normal	Nahiko samar	Asko
Elkarreragin sozialean ibili dira					X
Instrumentuekin besteak egiten duena imitatzen saiatu dira			X		
Parte-hartu dute					X
Sortu eta adierazi instrumentuekin					X
Bestea entzun dute		X			
Txandak errespetatu dituzte			X		
Arreta eta kontzentrazioa				X	

2.2. 2.Jarduera: Emozioak

	Ezer ez	Gutxi	Normal	Nahiko samar	Asko
Emozioak identifikatu					X
Emozioak bereizi				X	
Musika-emozioa lotu				X	
Emozioen aukeraketaren zergatia adierazi dute			X		
Errespetuz aritu dira					X
Norbere buruarengan konfiantza				X	

2.3. 3.Jarduera: Taldekatzeak

	Ezer ez	Gutxi	Normal	Nahiko samar	Asko
Espazio osotik mugitu dira					X
Zehaztutako kopuruetan elkartu dira				X	
Adiskide gehienekin harremandu dira				X	
Errespetuz aritu dira					X
Adiskide guztiak taldeetan onartu dituzte				X	

2.4. 4.Jarduera: Ipuin Musikala

	Ezer ez	Gutxi	Normal	Nahiko samar	Asko
Instrumentuak ezagutu dituzte				X	
Melodia eta erritmoak sortu dituzte				X	
Instrumentuak bere txandan erabili dituzte					X
Sortu eta adierazi dute instrumentuekin				X	
Arreta prestatu dute instrumentua bere momentuan jotzeko				X	
Ipuinaren kulturartekotasunaren mezua ulertu dute				X	
Errespetuz aritu dira					X

2.5. 5.Jarduera: Erlaxazioa

	Ezer ez	Gutxi	Normal	Nahiko samar	Asko
Gorputza lasaitu dute				X	
Gorputz jarreraren ezberdintasunaz: urduritasuna-lasaitasuna jabetu dira				X	
Musikarekin lasaitu dira					X
Masajea ematen lasai aritu dira				X	
Istoria jarraitu dute				X	
Soinuak entzuten egon dira				X	
Errespetuz aritu dira					X

3. Eranskina. Behaketa semaforoa



4. Eranskina. Imitazio musikalak: Instrumentuak



5. Eranskina. Emozioak: Emozio txartelak



6. Eranskina. Emozioak: musika-sailkapena

- Angerfist (Angerfist) (2018ko maiatzaren 24a). *Angerfist-Pennywise* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=pCgFZMLico0>


- Majestica (Nuclear Bast Records). (2020ko azaroaren 20a). *Ghost of Marley* (Video). Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=B_RKRbA9gRY
- Pirritx, Porrotx eta Marimots (Gabi de la Maza) (2015ko martxoaren 11a). Youtube. *Masajea* (Video). <https://www.youtube.com/watch?v=sGWM0f7OuQs>
- U.D.O. (AFM Records) (2016ko apirilaren 5a) *Man and Machine* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=PvrOeLq7dmQ>
- Ausartak (Ausartak). (2018ko maiatzaren 9a). *Ausartak* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=r6QNLyxaG4s>
- Hans Zimmer (bsocine) (2009ko apirilaren 27a). *Piratas del Caribe* (Video). Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=KsimX_A2Uyo
- Sergio Mendes (Sergio Mendes) (2019ko martxoaren 2a). *Fanfarra cabua-Le-Le* (Video). Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=_Cd6Kaf0ag0
- Ludovico Einaudi (Beatriz) (2014ko martxoaren 6a). *Una Mattina* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=94-PAIMDhaQ>
- Huntza (Huntza Official) (2013ko azaroaren 13a). *Lasai, lasai* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=w3QPzUVx3Ps>
- Joseph Bisara (Joseph Bisara) (2019ko martxoaren 15a). *Touring Haunted Planes* (Video). Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=SJ6f4pxr_RA

7. Eranskina. Taldekatzeak: musika-sailkapena

- CantaJuego (CantaJuegoVEVO) (2010ko irailaren 2a). *Epo* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=ZQoi2uMrDMM>
- Pica-Pica (Pica-Pica Official) (2018ko martxoaren 17a). *Tutira Mai Nga Iwi* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=NHuHvJkg-O8>
- Pirritx, Porrotx eta Marimotots (Pirritx, Porrotx eta MariMotots) (2017ko uztailaren 27a). *Pausoka-pausoka* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=HhA-Kf-Bxgg>
- Pirritx, Porrotx eta Marimotots (Pirritx, Porrotx eta MariMotots) (2017ko abuztuaren 9a). *Tipi-tapa, Korrika!* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=iFRna-QJOy0>
- Pirritx, Porrotx eta Marimotots (Pirritx, Porrotx eta MariMotots) (2017ko uztailaren 27a). *Mari Motots* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=HwLOGeuPzvc>

- En Tol Sarmiento (E.T.S. Official) (2019ko azaroaren 8a). *Aukera Berriak* (Video). Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=_DoxQkaMNkc
- Huntza (Huntza Official) (2013ko azaroaren 13a). *Lasai, lasai* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=w3QPzUVx3Ps>
- Ene Kantak (EneKantak). (2018ko maiatzaren 9a). *Ausartak* (Video). Youtube . <https://www.youtube.com/watch?v=r6QNLyxaG4s>
- TraLaLa (TraLaLa) (2013ko otsailaren 9a). *Oac, oac, diri-diri-dam* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=s1kgaxqRrXY>
- Galinha Pintadinha (Galinha Pintadinha) (2016ko urtarrilaren 1a). *Formiginha* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=78xEaW5GJ0g&t=78s>

8. Eranskina. Ipuin musikala: Kamilo Krokodiloa



9. Eranskina. Ipuin musikala: medailak



10. Eranskina. Erlaxazioa: Musika-sailkapena

- Acerting Art (Acerting Art) (2012ko uztailaren 29a). *Relax: Olas del mar, sonidos del océano, hd 1080p* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=-fB-3p69rjs>

- Cassio Toledo (Cassio Toledo) (2017ko irailaren 13a). *Música Zen y Sonidos de la Naturaleza- Quitar el estrés y Descansar la mente* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=6CoMDwhfaew>
- Giordano Trivellato (Música de Yoga- Tema) (2016ko uztailaren 27a). *Música para hacer yoga con los niños* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=CLsRLWHaqxk>
- Marco Rinaldo (Academia de Música con sonidos de la Naturaleza) (2018ko apirilaren 10a). *Arroyo en el bosque, Música de la Guitarra* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=-a-CuuI7EZO>
- Marco Rinaldo (Academia de música con sonidos de la Naturaleza) (2018ko apirilaren 10a). *Sonidos de Pájaros en el Bosque* (Video). Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=GQSmomCmuw0>